

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 10/2021 Foru Dekretua, martxoaren 9koa. Onestea dibertsitate funtzionala dutenentzako Arabako Lurralde Historikoko eguneko egoitza arretako zentroyen eta zentro okupazionalen oinarritzko estatutua

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailak, bere eskumenen artean, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako gizarte zerbitzuak ematekoa dauka, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuak, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak ezarri baitziren 2019-2023 agintaldirako, xedatutakoaren arabera, baita bakoitzari dagozkion eginkizunak eta eskumen arloak ere.

Eskumen hori Gizarte Politiken Sailak gauzatzen du, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege erregimenari buruzkoak, sailaren titularrari ematen dizkion ahalen esparruan, orobat Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretuarekin lotuta, Gizarte Zerbitzuen Sailaren egitura organiko eta funtzionala onartzen baitu.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailak bere eskumenean sartutako gizarte-zerbitzuekin zerikusia duten jarduerak antolatu, kudeatu, eman eta egikaritzeko funtzioak betetzen ditu, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez; ekainaren 20ko 21/1998 Foru Arauaren bidez sortu zen, sail horri atxikitako erakunde autonomo gisa, eta Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak arautzen ditu haren antolaketa eta egitura. Horrela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Arabako Lurralde Historikokoan dagoen gizarte-zerbitzuen erantzukizun publikoko sarea kudeatzen duen erakundea da.

Eskumen esparru hori erreferentzia izanda, beharrezkotzat jo da dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako eguneko egoitza arretako zentroyen eta zentro okupazionalen oinarritzko estatutu batean jasotzea azken urteetan gizarte zerbitzuen arloko arauetan egindako berrikuntzak eta arreta ereduak aurrerapenak, pertsonarengan ardaztutako plangintzaren ikuspegitik. Haien oinarria Espainiako estatuak (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 96. zenbakia, 2008ko apirilaren 21ekoa) berretsitako 2006ko abenduaren 13ko Pertsona minusbaliatuen Eskubideei buruzko Hitzarmena da.

Araudiaren ikuspuntutik, estatutu honetan, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte-zerbitzuei buruzkoak eta urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, baina baita apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak, zeinaren bidez onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea, ezarritako funtsezko printzipioak jasotzea.

Era berean, haren xedapenak Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 22ko 36/2014 Dekretuan (arautzen duena mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere) jasotako arauketara egokitu behar ziren, bereziki, estatutu berriaren aplikazio-eremua araudi horrek gizarte-zerbitzuen foru-sareari ematen dion definiziora hedatzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako zerbitzu guztiak han sartuz, bai zuzeneko kudeaketako araubidean titulartasun publikoko zentroetan ematen direnean bai erakunde pribatuekiko itun-, hitzarmen- edo kontratu-araubidean ematen direnean.

Bestalde, dibertsitate funtzionala dutenentzako Arabako Lurralde Historikoko eguneko egoitza arretako zentroen eta zentro okupazionalen oinarrizko estatutua oinarrizko dokumentua izango da geroago zentro bakoitzarentzat jarduteko oinarrizko araudi bat, etorkizuneko barne-araubideko araudia, garatzeko. Bertan jasoko da arretarako printzipio batzuei eta filosofia bati izaera-agiria eman beharra. Printzipio eta filosofia horiek nabarmenki azpimarratzen dituzte jarduteko jarraibideak eta zentroen antolaketa eta, dibertsitate funtzionala duten pertsonen arreta ematean gero eta presentzia handiagoa badute ere, aitorten formala behar dute. Printzipio horien artean, hauek nabarmentzen dira, besteak beste:

- Arreta erabiltzaileen eskubideen errespetuaren, sustapenaren eta defentsaren inguruan antolatu eta ematea.
- Ingurunea eta antolaketa komunitatean ohikoak diren bizimoduetara egokitzea.
- Pertsonarengan ardaztutako plangintzaren ikuspegitik arreta pertsonalizatua eta osoa ematea.
- Banakako programazioaren ikuspegi funtzionala.
- Bizi kalitate eta laguntza ereduak aplikatzea.
- Autonomia pertsonala sustatzea eta bizitza independentera bideratzea.

Estatutu hau egitean, kontuan hartu da zer dioten Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planak (2016-2020) oinarri dituen emakumeen eta gizonen berdintasunerako printzipioek eta Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2015 Legearen edukiak, xedea baita hauexek erdieste: tratu berdintasuna, aukera berdintasuna, dibertsitatearekiko eta desberdintasunarekiko errespetua, genero ikuspegi txertatzea, positiboki ekitea, sexuaren araberako rola eta estereotipoak desagerraraztea, ordezkaritza orekatua izatea eta koordinatuta eta lankidetzan jardutea.

Azkenik, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 7. artikulua eskumena eman dio Foru Gobernu Kontseiluari foru arauak, autonomia erkidegoetako legeak eta Estatuarenak garatzeko arauak emateko.

Horregatik, Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak proposatuta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseilua jakinaren gainean jarrita eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea dibertsitate funtzionala dutenentzako Arabako Lurralde Historikoko eguneko egoitza arretako zentroen eta zentro okupazionalen estatutua. Haren artikuluen testua xedapen honen eranskin gisa ageri da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Datuen babesa.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailak eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak estatutu honetan aipatutako prozeduren esparruan jasotako datu pertsonalen babes egokia ziurtatuko dute, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak, eta bera garatzeko araudiak xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Barne-araubideko araudiak onestea.

Estatutu honen 40. artikuluan aipatutako barne-araubideko araudiak 6 hilabeteko epean prestatu eta egin beharko dira, estatutu hau indarrean sartzen den egunetik zenbatuta.

Hirugarrena. Arau hausteen eta zehapenen araubidea.

Estatutu honek xede dituen zentroetan abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte-zerbitzuei buruzkoak, VII. tituluko II. kapituluaren araututako arau hausteen eta zehapenen araubidea aplikatuko da.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Zentro itundu, hitzartu edo kontratatutak egokitzeko epea.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin itundu, hitzartu edo kontratatutako dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroen titular diren erakundeek, dekretu hau indarrean jartzeko datan jardunean ari badira, urtebeteko epea izango dute, data horretatik zenbatuta, bertan xedatutakoa betetzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Ordezko araubidea.

1. Zentroen estatutu honek berariaz xedatzen ez duen guztirako, arau hauetan jasotako xedapenak aplikatuko dira horren ordez:

a) Sartzeari dagokionez, Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretua, uztailaren 22koa, arautzen duena mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere.

b) Eskubide eta betebeharreri dagokionez, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte-zerbitzuei buruzkoak, dakartzan aurreikuspenak eta apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onesten dituenean, azken horren aurreikuspenak, baita Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 2ko 40/2019 Foru Dekretuan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzea onartzen duenean, ere.

c) Arau hausteen eta zehapenen araubideari dagokionez, abenduaren 5eko 12/2008 Legea, gizarte-zerbitzuei buruzkoa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea.

2. Oro har, berariazko arauak buruz egiten diren aipamenak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak zein foru-aldundikoak izan, une bakoitzean arlo horiei dagokionez indarrean dagoen araudiarekin lotuta egongo dira.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 9a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ

ERANSKINA**DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTENENTZAKO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO EGUNEKO EGOITZA ARRETAKO ZENTROEN ETA ZENTRO OKUPAZIONALEN OINARRIZKO ESTATUTUA****I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua.- Xedea eta aplikazio-eremua.
2. artikulua.- Helburua eta erakundeen konpromisoa.
3. artikulua.- Dibertsitate funtzionala duten pertsonak.
4. artikulua.- Zedarriztapen kontzeptuala, helburuak eta motak.
5. artikulua.- Jarduketa-printzipioak eta arreta-eredua.

II. TITULUA.- ERABILTZAILIEN ETA PROFESIONALEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.**I. KAPITULUA.- ERABILTZAILIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.**

1. atala.- Erabiltzaileen eskubideak.
 6. artikulua.- Eskubideen zerrenda.
 7. artikulua.- Duintasunerako eskubidea.
 8. artikulua.- Pribatutasunerako eskubidea.
 9. artikulua.- Autodeterminaziorako eskubidea.
 10. artikulua.- Autonomia edo independentzia funtzionalerako eskubidea.
 11. artikulua.- Hautatzeko eskubidea.
 12. artikulua.- Norberaren gogobetetasunerako eta errealizaziorako eskubidea.
 13. artikulua.- Norberaren eskubideak ezagutzeko eta defendatzeko eskubidea.
2. atala.- Erabiltzaileen betebeharra.
 14. artikulua.- Betebearren zerrenda.
 15. artikulua.- Araudia betetzea.
 16. artikulua.- Bizikidetasun-arauak betetzea.
 17. artikulua.- Pertsonak errespetatzea.
 18. artikulua.- Instalazioak errespetatzea.
 19. artikulua.- Anomalien eta irregularitasunen berri ematea.
 20. artikulua.- Prezio publikoa ordaintzea.
 21. artikulua.- Banakako arretako plana (BAP) betetzea.
 22. artikulua.- Osasunari lotutako arauak betetzea.

II. KAPITULUA.- PROFESIONALEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

1. atala.- Profesionalen eskubideak.
 23. artikulua.- Eskubideen zerrenda.
 24. artikulua.- Duintasunerako eskubidea.
 25. artikulua.- Berdintasunerako eskubidea.
 26. artikulua.- Prestakuntza jasotzeko eskubidea.
 27. artikulua.- Parte hartzeko eskubidea.
 28. artikulua.- Zerbitzuaren kalitaterako eskubidea.
2. atala.- Profesionalen betebeharra.
 29. artikulua.- Betebearren zerrenda.
 30. artikulua.- Pertsonak errespetatzea.
 31. artikulua.- Araudia betetzea.
 32. artikulua.- Bizikidetasun-arauak betetzea.
 33. artikulua.- Instalazioak errespetatzea.
 34. artikulua.- Komunikatzeko eginbeharra.

III. TITULUA.- DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN PERTSONENTZAKO ZENTROETAN SARTZEA.

- 35. artikulua.- Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroetan sartzea.
- 36. artikulua.- Laguntzen beharra egoitzan sartu ondorengo erabakiak hartzeko.
- 37. artikulua.- Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroetara joatea.
- 38. artikulua.- Egokitze-aldia.
- 39. artikulua.- Erabiltzaile-izaera.
- 40. artikulua.- Barne-araubideko araudia.
- 41. artikulua.- Informazio-liburuxka.

IV. TITULUA.- ANTOLAKETA- ETA FUNTZIONAMENDU-EGITURA**I. KAPITULUA.- ZENTROEN ZUZENDARITZA**

- 42. artikulua.- Erantzukizunen esleipena.
- 43. atala.- Eginkizunak.

II. KAPITULUA.- ERABILTZAILEEK TALDEAN PARTE HARTZEKO ORGANOAK.

- 44. artikulua.- Erabiltzaileen partaidetza.
- 45. artikulua.- Taldean parte hartzeko organo-motak.
- 1. atala.- Batzar Orokorra.
 - 46. artikulua.- Batzarkideak.
 - 47. artikulua.- Bileren aldizkakotasuna eta deialdia.
 - 48. artikulua.- Batzar Orokorra eratzea.
 - 49. artikulua.- Eginkizunak eta ahalmenak.
- 2. atala.- Parte-hartze Batzordea.
 - 50. artikulua.- Batzordekideak.
 - 51. artikulua.- Ordezkarien hautaketa.
 - 52. artikulua.- Hauteskunde deialdia.
 - 53. artikulua.- Bileren aldizkakotasuna eta deialdia.
 - 54. artikulua.- Parte-hartze Batzordea eratzea eta erabakiak hartzea.
 - 55. artikulua.- Parte-hartze Batzordearen eginkizunak eta ahalmenak.
 - 56. artikulua.- Parte-hartze Batzordeko batzordeburuaren eginkizunak.
 - 57. artikulua.- Parte-hartze Batzordeko idazkariaren eginkizunak.
 - 58. artikulua.- Parte-hartze Batzordeko kideen eginkizunak.

V. TITULUA.- BANAKA PARTE HARTZEKO BIDEAK

- 59. artikulua.- Kontsultatzeko eginbehera.
- 60. artikulua.- Iradokizunak eta kexak formalki aurkeztu aurretiko bideak.
- 61. artikulua.- Iradokizunen eta kexen araubidea.

ERANSKINA.- DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN PERTSONENTZAKO ZENTROETAKO PARTE-HARTZE BATZORDERAKO ORDEZKARIAK HAUTATZEKO HAUTESKUNDE ARAUDIA.**I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua.- Xedea eta aplikazio-eremua.**

- 1. Estatutu honek gizarte zerbitzuen foru sarean sartuta dauden dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroetako –egoitza eta eguneko arreta zerbitzuak eta arreta okupazionalako zerbitzuak– erabiltzaileen eta profesionalen jarduteko printzipioak,

eskubideak eta betebeharrak ezartzen ditu, baita zentroak antolatu eta jarduteko arauak ere.

2. Horretarako, eta Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretuak (arautzen duena mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere; aurrerantzean, 36/2014 Foru Dekretua edo sartzeko araudia) 1.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako dibertsitate funtzionala duten pertsonen arretarako zentroak joko dira gizarte-zerbitzuen foru-sarean sartutakotzat, bai zuzeneko kudeaketako araubidean emanak bai erakunde pribatuekiko itun-, hitzarmen- edo kontratu-araubidean emanak.
3. Estatutu hau ez zaie aplikatuko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak beste erakunde publiko batzuekin itundutako plazei. Plaza horiek erakunde publiko horiek dibertsitate funtzionala duten pertsonen arretarako zentroentzat ezartzen dituzten antolaketa araubideari eta funtzionamenduari lotuta geratuko dira.
4. Estatutu honetan jasotako aurreikuspenak araudi autonomikoak dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentro mota bakoitzarentzat unean-unean zehazten dituen baldintza material eta funtzionalen eta pertsonal baldintzen osagarri izango dira.
5. Hala, estatutu hau antolaketa eta funtzionamendu esparru orokor malgu gisa eratu da, eta haren berariazko aplikazioa zentro eta zerbitzu bakoitzaren barne-araubideko araudian ezarritako xedapenekin osatuko da.
6. Estatutu honetan jasotako eskubideen erabilera eraginkorra aldi baterako etenda geratu ahalko da osasun publikoko zioengatik ezarritako osasun larrialdi edo alerta egoeretan, estatu eta autonomiako administrazioek osasunaren arloan dituzten eskumenen esparruan kasu bakoitzean erabakitzen dituzten baldintzetan eta epean. Orobat, estatutu honetan jasotako gainerako xedapenen aplikazioa aldi baterako etenda edo aldatuta geratu ahalko da.

Halako egoeretan, artikulua honetako 2. zenbakian aipatutako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen mendeko zerbitzu eta zentroetan indarrean dagoen osasun larrialdi edo alerta egoeretan jarduteko protokoloa aplikatuko da.

2. artikulua.- Helburua eta erakundeen konpromisoa.

1. Estatutu honen xedea gizarte zerbitzuen foru sarean dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentro guztiei eskubideen eta betebeharren arloan eta antolaketaren eta funtzionamenduaren arloan oinarritzko esparru komun bat ziurtatzea da.
2. Eraginkortasunez aplikatzeko, zentroetan arreta eta laguntza eginkizuna garatzen duten profesionalen eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta zerbitzua ematen parte hartzen duten erakunde laguntzaileen konpromiso irmoa behar da. Hala, erabiltzaileen eskubideen benetako erabilera errespetatu eta sustatzeak funtsezko faktorea izan behar du zerbitzuen plangintza, antolaketa, funtzionamendu eta finantzaketari lotutako erabakiak hartzeko.

3. artikulua.- Dibertsitate funtzionala duten pertsonak.

1. Dibertsitate funtzionala duten pertsonak, hurrengo artikuluan aurreikusitako modalitateetan eguneko, okupazio edo egoitza zentroetan arretan jasotzen dutenek, estatutu honen aplikazio eremuan sartuta badaude, euren eskubideak erabili, euren betebeharrak bete eta bertan aurreikusitako gainerako jarduketak egitean, euren kabuz jardungo dute, erabakiak hartzen laguntzeko beharrezkoak diren laguntza tekniko eta/edo pertsonalekin.
2. Beharrezkoa bada, dibertsitate funtzionala duten pertsonak zeharka jardun ahalko du, bere legezko ordezkariaren edo egitatezko zaintzailearen bitartez, unean-unean indarrean dauden lege zibiletan eta prozesu legeetan ezarritako baldintzetan.

3. Estatutu honetan erabiltzaileei egiten zaizkien erreferentzia guztiak artikuluko honetan aurreikusitakoaren arabera ulertu eta egoera pertsonalaren arabera interpretatu beharko dira.

4. artikulua.- Zedarriztapen kontzeptuala, helburuak eta motak.

1. Gizarte zerbitzuen foru sarean sartzen diren dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroak dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako establezimenduak dira. Pertsona horiek muga fisiko eta/edo psikiko handiak dauzkate eguneroko bizitzako jarduerak egiteko eta/edo okupazio jardueretan aritzeko eta zenbait intentsitatetako laguntzak behar dituzte.
2. Hauek dira haien helburu orokorrak: dibertsitate funtzionala duten pertsonen giro egokia eskaintzea euren garapen pertsonalerako, ongizate fisiko, psikiko eta soziala mantentzen eta hobetzen laguntzea, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko behar dituzten laguntzak eskaintzea, eta gizarte bizitzan integratzea eta parte hartzea sustatzea. Azken xedea bizi kalitate ona mantentzen edo lortzen erraztea da.
3. Gizarte zerbitzuen foru sarean sartzen diren dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroak, euren helburuaren eta ezaugarrien arabera, eguneko, okupazio eta egoitza zerbitzu edo zentroetan sailkatzen dira. Estatutu honen ondorioetarako, eta urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak (aurrerantzean, Zorroaren Dekretua), jasotzen dituen xedapenakiko koherentziari eusteko, horrelako zentroak definizio hauekin bat datoz:
 - a) Honela definitzen dira eguneko zentroak: diziplina anitzeko talde profesional batek egindako jarduketan multzo antolatua eta koordinatua baten bidez, ahal den heinean, haien garapen pertsonala eta soziala, haien autonomia eta haien gizarteratzea erraztea bilatzen duen gaikuntza arreta oso bat ematen dieten zerbitzuak. Azpimota bi bereizten dira:
 - Autonomia pertsonaleko zentroa muga fisiko edo organiko larriak dituzten pertsonentzat,
 - Adimen edo garapen urritasuna duten pertsonentzako eguneko zerbitzua edo zentroa.

Eguneko egoitza edo zentroak aldi batez edo iraunkorki artapen indibidualizatu eta osoa eskaintzen die egunez dibertsitate funtzionala duten pertsonen; zerbitzu horren xedea da autonomia pertsonalaren maila hobetzea edo hari eustea, muga funtzionalak orekatzea eta ohiko zaintzaileei laguntza ematea, autonomia pertsonala mantentzeko eta ingurune komunitarioan parte hartzeko, gaitasunak eskuratzea eta garatzera bideratutako prebentzio, trebakuntza eta laguntza prestazioen bidez.

Intentsitate ertain eta altuko zerbitzu bat da eta hauek bermatzen ditu: a) zabalik dagoen orduetan zaintzaileak –eta hezitzaileak bigarren zerbitzu edo zentro motan– etengabe egotea; b) osasun eta erizaintza zerbitzua ematea, beharrezkoa bada; c) ongizate fisiko, psikologiko eta sozialera begira dagoen arreta oso bat emateko profil egokiak dituzten profesionalen diziplina anitzeko talde baten laguntza.

Bere jardunean, malgutasun irizpideak aplikatuko dira zerbitzuaren erabilera erabiltzaileen beharrezan eta nahietara egokitua izateko.

- b) Okupazio zerbitzu edo zentroak dibertsitate funtzionala duten pertsonen gizarte bizitzan partaidetza aktiboagoa izatea errazten du, diziplina anitzeko talde profesional batek garatutako garapen pertsonalerako programen bitartez. Programa horiek jarduera produktiboaren ingurukoak dira, posible denean enplegua eskuratzea errazteko.

Baliabide honen helburua da erabiltzaileen gizarteko eta laneko garapena erraztea, haien autonomia pertsonala, autodeterminazioa eta gizartearen aintzatespen eta balioespen handiagoa sustatuz. Horretarako, zerbitzu horren esparruan, hauek lagundu, erraztu eta sustatuko dira:

- Autonomia pertsonala eta gizarteratzea eta laneratzea lortzeko beharrezkoak diren egokitzapen trebetasunak, okupazionalak eta sozialak eskuratzeko eta hobetzea; hori guztia erabiltzaileen gizarte bizitzako parte-hartzea handiagoa eta eraginkorragoa izan dadin;
- Garapen pertsonala, estimulazio eta/edo errehabilitazio, okupazio edo lan aurreko, hezkuntza eta prestakuntza edo kultura jardueren bitartez, berariazko zentro bateko esparruan zein bestelako baliabide komunitarioetan eta kanpoaldean eginda.
- Autonomia maila mantentzea, narriadura prebenitzea, eta hala badagokio, gaitasunak eta trebetasunak berreskuratzea (kognitiboak, funtzionalak, sozialak).

Erabiltzaileak ez dira inolaz ere langile lan-kontratudunak izango eta, beraz, zerbitzu edo zentroaren eta erabiltzaileen arteko harremana ez da lanekoa izango. Hori hala izanik ere, okupazio jardueretan diharduten erabiltzaileek haborokin ekonomiko bat jasoko dute euren okupazioagatik.

Zerbitzu edo zentro hori lan merkatu arrunteko laguntza duten enplegu programekin eta enplegu babestuetako programekin integratuta kudeatu ahalko da. Programa horiek enplegu zentro berezien edo laneratzeko enpresen esparruan eskaintzen dira.

Haien jardunean, malgutasun irizpideak aplikatuko dira, zerbitzuaren intentsitatea erabiltzailearen beharrian, interes eta nahietara egokitu ahal izateko. Laneratzeko ibilbide pertsonaleko lehen urrats gisa pentsatuta dago, edo behin betiko aukera gisa, laneratzeko zailtasun larriak dituzten pertsonen kasuan, eta gizarte funtzionaltasuneko programekin osatzen da.

Okupazio zentroak mistoak izan ahalko dira, eguneko jarduerak eta benetako okupazio jarduerak uztartuz, erabiltzaileen beharrianen bilakaerara hobeto egokitzea errazteko.

- c) Egoitza zentroak elkarbizitzarako zerbitzuak dira, ohiko etxebizitza edo etxebizitza iraunkor gisa erabil daitezkeenak edo, hala badagokio, aldi batez; desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten pertsonak erabiltzen dituzte, baldin eta premiak etxebizitza pertsonalean edo familiarenean ezin badituzte asebate. Modalitate bi dauzka: laguntzak dituzten etxebizitzak eta egoitza zentroak.

Laguntza intermitente, mugatu, zabal eta orokortuko mailak bermatzen dituzte, banakoak, eta pertsonen beharrian aldakorretara egokituak eta, horretarako, ongizate fisiko, psikologiko eta sozialera begira dagoen arreta oso bat emateko profil egokiak dituzten profesionalen diziplina anitzeko talde baten laguntza dute.

Honako helburu hauek ditu:

- Erabiltzaileen ongizate fisikoa eta emozionala hobetzea.
- Haien autonomia pertsonala mantentzea eta ahal den heinean haren garapena sustatzea eta hura narriatzea ekiditea.
- Eguneroko bizitzako jarduerak aurrera eramateko beharrezkoak diren zainketak eta laguntza pertsonala bermatzea.
- Haien garapen pertsonala, ahalmenak, gaitasunak, trebetasunak eta esperientziak bizitza autonomo baterantz bultzatzea.
- Komunitate ingurunean integratu eta parte hartzeko eta komunitate zerbitzuak erabiltzeko aukerak eskaintzea.
- Elkartasunean eta elkarlaguntzan oinarritutako bizikidetzarekin gogobeteta egon daitezen saiatzea.

- Haien laguntzako familia eta gizarte sareak mantendu eta indartzea sustatzea.
- Segurtasun sentimendua areagotzea.

5. artikulua.- Jarduketa-printzipioak eta arreta-eredua.

1. Oro har, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arautzeko oinarrizko printzipioak aplikatuko dira, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte-zerbitzuei buruzkoak, 7. artikuluan jasotzen dituenak.
2. Zehatz-mehatz, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroek jarduketa-printzipio hauetara egokituko dituzte beren arreta-filosofia, antolaketa eta funtzionamendua:
 - a) **Arreta erabiltzaileen eskubideen errespetuaren, sustapenaren eta defentsaren inguruan antolatu eta ematea.** Printzipio horren arabera, laguntzak antolatzean ezinbestekoa da beti eskubideen errespetua hartzea arretaren ardatz, beharrezkoak diren eskubide horretarako mugak soilik sartzen saiatuz, erabiltzailearen egoera, gaitasun-maila eta behar zehatzak kontuan hartuta, beraiek izaten jarraitu eta, ahal den neurrian, eduki nahi duten bizi-estiloa aukeratu ahal izaten dezaten laguntzeko asmoz.
 - b) **Ingurunea eta antolaketa komunitatean ohikoak diren bizimoduetara egokitzea.** Printzipio horren arabera, bai egituraren eta diseinu fisikoan bai antolaketan, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako egoitza eta eguneko zentroak etxe baten ahalik eta antz handiena izatea sustatuko da, erabiltzaileek beren ohiko errutinei eusteko helburuarekin, beharrezkoa izan daitekeen malgutasunarekin, eta ahal den neurrian eguneroko lan jakin batzuk egiten lagundu ahal izan dezaten, profesionalen laguntzaz eta laguntza-sarearen (senideak, lagunak, boluntarioak) partaidetzaz.
 - c) **Pertsonarengan ardaztutako plangintzaren ikuspegitik arreta pertsonalizatua eta osoa ematea.** Printzipio honen arabera, arreta entzuteko prozesu iraunkor baten esparruan eratzen da. Hauek dira horren xedeak: artatutako pertsonentzat haien oraingo bizitzari zein etorkizunerako dituzten bizi planei dagokienez garrantzitsua dena ezagutzea, haien banakotasuna eta desberdintasun pertsonalak errespetatzea, haiek gaitzea, haien bizitza dauzkan alderdi guztietan aintzat hartzea, zentroko bizitzara mugatu beharrean, eta pertsonen beharrianak zentroko errutinen eta egituraren beraren aukeren arabera definitzea saihestea. Ikuspegi hori hartzeko, dibertsitate funtzionala duten pertsonak ulertzeko eta haiei laguntzak emateko modua aldatu behar da, eta profesionalaren eta dibertsitate funtzionala duen pertsonaren arteko botere erlazio orekatu bat ezarri.
 - d) **Banakako programazioaren ikuspegi funtzionala.** Arestiko letran aipatu den pertsonarengan ardaztutako plangintzaren ikuspegitik garatutako banakako plangintzak elementu funtzionalak hartu behar ditu ardatz, hots, dibertsitate funtzionala duten pertsonen eguneroko bizitzan aplikazio erabilgarria duten ezagutzak eta trebetasunak eta plangintza horretan pertsonarentzat garrantzitsua dena, bere bizitzan sartu eta/edo atera nahi duena, dauzkan gaitasunak eta hori lortzeko behar dituen laguntzak aintzat hartuz ezarritako helburuak lortzea.
 - e) **“Genero zeharkakotasun”aren printzipioa txertatzea** esku-hartze, programa eta/edo jarduketa guztietan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen aurrera egiteko estrategia eraginkor gisa, genero desberdintasunak ezabatzen, lan prozedurak eta metodoak zuzentzen eta gizarte aldaketarako joerak bultzatzen laguntzeko asmoz. Horretarako, esku-hartze edo programa baten ebaluazioa egiten denean, genero eragina aztertu beharko da, emakumeen eta gizonen bizitzan dauzkan emaitzak eta ondorioak

bereizita aztertuz, genero desberdintasunak sortzea edo areagotzea identifikatu, prebenitu eta ekiditeko.

- f) **Laguntza-eredua aplikatzea.** Haren helburua arreta pertsonen autodeterminazioan eta gaitasunetan ardatzea da, mugetan soilik ardatzu beharrean; horretarako, haien nahiekin bat datorren bizi-tza egiten jarraitu ahal izateko eta, ahal den neurrian, haien autodeterminazio-maila, harremanak, komunitatean duten partaidetza eta ongizate pertsonala kontserbatzen edo hobetzen laguntzeko behar dituzten laguntzak zehaztuko dira.
- g) **Bizi-kalitatearen eredua aplikatzea.** Bizi-kalitatearen ereduak zera eskatzen du: alde batetik, onartzea pertsona bakoitzak baduela zeresanik haren bizi-tza, alderdi guztietan (ongizate emozionala, pertsonen arteko harremanak, ongizate materiala, garapen pertsonala, ongizate fisikoa, autodeterminazioa, gizarte-inklusioa eta eskubideak), garatuko den inguruabarrei eta baldintzei buruz; eta, bestetik, behar dituzten pertsonen laguntza egokiak ematea.
- h) **Jokabide onaren babesa aplikatzea.** Esku hartzeko eta ikasteko teknika honek xede hauek ditu: jokabide zailak murriztea eta jokabide prosozialak –hau da, egokiak eta gizarte onartuak– egituratu eta sortzea, jokabide aldaketa iraunkorra ziurtatzea, pertsonen benetako bizitzan aurki ditzaketen egoera mota guztiei aplikatu ahal izatea eta bizi estilo egokia eskuratzen laguntzea. Horretarako, testuinguruaren aldaketan oinarritzen da, horretarako ingurunearen gabeziak eta jokabide sortaren gabeziak zuzenduz.
- i) **Autonomia pertsonala sustatzea eta bizi-tza independentera bideratzea.** Zentro guztiek eratu dituzte euren antolaketa, funtzionamendua eta laguntzen diseinua autonomia pertsonala hobetu edo, kasuan kasu, maila ahalik eta handienari eusteko behararen inguruan, bai fisikoki, bai erabakitzeko gaitasunari dagokionez, ahalik eta independentzia mailarik handiena bermatzeko, pertsonaren gaitasunak aintzat hartuta. Egoitza zerbitzuen kasuan, horretarako gaitasunak eta nahiak dauzkaten erabiltzaileak erakundeetatik atera eta bizi-tza independentea izateko sustatzen eta prestatzen saiatuko da.
- j) **Esku-hartzeen diziplinartekotasuna.** Hau da haren xedea: emandako arretaren izaera integrala eta baliabideen aplikazio arrazional eta efizientea bermatzea, taldeko lana sustatzea -guztiz sinetsita diziplinarteko lanaren eragina bakarka lan egiten duten profesionalen lanaren batura baino handiagoa dela- eta lanbide bakoitzak gizarte esku-hartzearen arloan egiten dituzten ekarpenak eta egokia den beste edozein integratzea.
- k) **Koordinazioa eta lankidetzak.** Printzipio hau eremu handi bitan eratzen da: alde batetik, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentro mota guztien arteko koordinazioa eta lankidetzak, elkar osatu eta baliabideen erabilera arrazional eta efizientea ahalbidetu ahal izateko, bakoitzaren dimentsioak, laguntza egiturak, zerbitzuak eta espezializazioa kontuan hartuta; bestetik, koordinazioa eta lankidetzak arretaren beste arlo batzuetako zerbitzuekin, hauekin zehazki:
- Osakidetzak Euskal Osasun Zerbitzuaren edo erabiltzailea babes lezakeen beste osasun sistema baten osasun zerbitzuekin, arretaren jarraitutasuna eta banako beharizanetara ahalik eta gehien egokitzen dela ziurtatzeko;
 - prestakuntza eta enplegu arrunta zein babestua eskuratzeko zerbitzuekin, posible denean, okupazio eremutik enplegu zentro berezietarantz edo laguntza duten enplegu formuletarantz trantsizioa egitea errazteko;
 - hezkuntza zerbitzu eta zentroekin.
 -

II. TITULUA.- ERABILTZAILEEN ETA PROFESIONALEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.**I. KAPITULUA.- ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.****1. atala.- Erabiltzaileen eskubideak.****6. artikulua.- Eskubideen zerrenda.**

1. Oro har, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroyen erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte: nazioarte mailan, Pertsona desgaituen eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritakoak, estatu mailan, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta horiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onetsi duenean, eta otsailaren 18ko 4/2005 Legean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoan, ezarritakoak eta, autonomia mailan, abenduaren 5eko 12/2008 Legean, gizarte-zerbitzuei buruzkoan, eta apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onesten dituenean, ezarritakoak.
2. Berariaz, atal honetan ezarritako eskubideak izango dituzte: duintasuna, pribatutasuna, autodeterminazioa, autonomia, hautua, gogobetetze eta errealizazio pertsonala, euren eskubideak ezagutu eta defendatzea. Eskubide bakoitzak gainerakoak informatzen ditu, eta elkar indartzen dute.
3. Euren eskubideak gauzatzeko, erabiltzaileek, zuzenean edo zeharka, estatutu honen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu dute.
4. Eskubidek benetan gauzatzea ahalbidetzeko, erabiltzaileei helarazi behar zaien informazio guztia komunikatzeko, ondo ulertzea hoberen ziurtatzen duten bideak erabiliko dira: ahoz, argi eta erraz ulertzen den lengoian informatzen duten liburuxken bidez, edo, beharrezkoa bada, erabiltzaileen beharrianetara hoberen egokitzen diren laguntza tekniko edo pertsonalak erabiliz.
5. Euren eskubideak erabiltzean, erabiltzaileek ezingo dituzte kaltetu zentroko beste erabiltzaileen eta profesionalen, edo zentroa bisitatzen duten beste pertsonen, senideen zein boluntario edo profesionalen, legezko eskubideak.
6. Estatutu honetan bildutako eskubideak benetan gauzatzeko direla bermatze aldera, pertsonen eskubideak eta zentroetako antolaketa-baldintzak uztartzeko eta bateragarri egiteko jardunbide egokien ereduaren aplikazioa sustatu eta erraztuko da (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak sustatzen ditu, arretaren kalitatea hobetzeko bere ekimenen esparruan), baita aplikagarriak diren jarduketa-protokolo eta -gidena ere.
7. Pertsonen eskubideek izan beharko dute erreferentzia puntu nagusia banakako arreta plana pertsonarengan ardaztutako plangintzaren ikuspegitik diseinatzeko, zein zentroaren antolaketa eta funtzionamendua diseinatzeko, eta gogoan hartu beharko da beti pertsonak bere eskubideak ezagutu, defendatu eta gauzatzeko zenbat eta gaitasun txikiagoa izan, handiagoa dela haren zaugarritasuna eta handiagoa behar duela haren ingurunearen konpromisoa eta ardura haiek errespetatzen direla ziurtatzeko eta haiek gauzatzea sustatzeko.

7. artikulua.- Duintasunerako eskubidea.

1. Estatutu honen ondorioetarako, inguruabar orotan, indibidualtasuna eta behar pertsonalak guztiz errespetatuz, pertsonen berezko balioa aitortzeko eskubideari esaten zaio duintasunerako eskubidea.
2. Eskubidea benetan gauzatzeko, hauxe egin behar da, erabiltzaileei dagokienez, zentroa egunekoa, okupazionala edo egoitza den aintzat hartuta:

- a) Zentroko arduradunek eta zentroetan lan egiten duten profesionalak haien beharrak eta, ahal den alderdi guztietan, haien nahiak eta lehenespenak guztiz errespetatuko dituzte, faktore etnikoak, erlijiosoak edo espiritualak eta kulturalak ere kontuan izanik.
- b) Ez dira jaiotza, sexua, sexu joera, genero identitatea, genero adierazpena, arraza, jatorri nazional, etniko edo soziala, erlijioa, sinesmena, ideologia, iritzia, kultura, hizkuntza, egoera fisiko, psikiko edo sensoriala, gaixotasuna, egoera ekonomikoa edo beste edozein inguruabar pertsonal, familiar edo sozial direla eta baztertuak izango.
- c) Banaka eta modu pertsonalizatuan emango zaie arreta. Horretarako, zera egin beharko da:
- Erabiltzaile bakoitzarentzat banakako arreta plan bat (BAP) egingo da pertsonarengan ardaztutako plangintzaren ikuspegitik, eta hauek jasoko ditu:
 - Pertsonak bizi nahi duen moduaren eta berarentzat garrantzitsua denaren identifikazioa, beste pertsona batzuek berarentzat garrantzitsutzat jotzen dutenetik bereiziz.
 - Izan nahi lukeen bizitzaren eta daramanaren artean dauden aldean deskribapena nahi duen horretara ahalik eta gehien hurbiltzeko behar diren laguntzak eskaintzeko.
 - Haren gaitasunen eta laguntza premien balorazioa.
 - Behar diren laguntzak emateko komenigarriak diren eta, hala badagokio, komenigarriak ez diren arreta-ereduak.
 - Ezarritako arreta-ereduak aldzika berrikusi, egiaztatzeko oraindik pertsonen beharrekin eta lehenespenekin bat datozen ala aldatu eta haien inguruabarren bilakaerara egokitu behar diren.
 - Erabiltzaile bakoitzarentzat gutxienez profesional bat izendatu, erreferentzia gisa jardun dezan, eta harreman horretan nolabaiteko jarraitutasuna bermatu.
- Horretarako, laguntza-jarduna erabiltzaileen bizimoduetara egokitzeko ahalegina egingo da, arreta-estilo malgua, arreta jasotzen duten pertsonen egoeran eta beharretan igarritako aldaketan arabera eboluzionatzeko gai dena, sortuz.
- d) Erabateko errespetuaz, zuzentasunez eta ulermenez emango zaie arreta, bai ahozko harremanetan bai, hala badagokio, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko behar duten laguntza fisikoan, eta ez zaie tratu txar fisiko edo morala dakarren tratu laidogarri edo iraingarririk emango. Garrantzi berezia dauka emakumearen segurtasuna eta babesa bermatzeak genero-indarkeria bilaka litezkeen jokabide eta jarrerren aurrean.
- e) Arreta segurtasun- eta garbitasun-baldintza egokietan jasoko dute.
- f) Haren autoestimua eta haren irudiaren eta estilo pertsonalaren zaintza sustatuko da alderdi guztietan, bitartekoak jarri erabiltzaileak, zentro batean sartzegatik, jantzi, orraztu, bitxiak edo bestelako osagarriak erabiltzeko ohiturei antolaketa arauetara egokitzeko behin betiko amore ematera behartuak izan ez daitezzen.
- g) Errespetatuak sentitu beharko dira harreman moduetan.
- h) Eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak eta jarduera instrumentalak egiteko beharrezkoak diren laguntzak jasoko dituzte.

- i) Ez dute medikuak, diziplinarteko lanaren ondoren, agindu ez duen eta baimen informatua sinatuz baimendu ez den edo kasuan kasuko jarduketa-protokoloetan eta -gidetan aplikatzeko ezarritako betekizunak betetzen ez dituen muga fisiko edo kimikorik izango.
- j) Afektu eta sexu harremanak adierazi eta izan ahalko dituzte intimitate eta begirune baldintzetan eta elkarrekiko adostasun esparru batean bati.
- k) Askatasunez adierazi eta komunikatu ahalko dira, kasuan kasu behar diren laguntza tekniko eta/edo pertsonalekin.
- l) Askatasunez mugitu ahalko dira, kasuan kasu behar diren laguntza tekniko eta/edo pertsonalekin, beste erabiltzaileen esparru pribatuak, sarrera mugatua duten esparruak eta langileen erabilerarako diren esparruak ere guztiz errespetatuz.
- m) Hiltzeko prozesuan, haien beharrekin eta nahiekin (adierazi badituzte) bat datozen babesa eta laguntza edukiko dituzte, eta profesionalak beren jarduketak jardunbide egokietara zein kasuan kasuko jarduketa-protokolo edo -gidetara egokituko dituzte.

8. artikulua.- Pribatutasunerako eskubidea.

1. Estatutu honen ondorioetarako, pertsonak beren intimitate pertsonala eta harremanetako gordetzeko, nahi izanik gero bakarrik egoteko, eragotziak ez izateko eta beren gai pertsonaletan inor ez sartzeko eskubideari esaten zaio pribatutasunari eskubidea, barruko alderdia pertsonaren baimenarekin soilik ezagutu ahal dela onartuta.
2. Eskubidea benetan gauzatzeko, hauxe egin behar da, erabiltzaileei dagokienez, zentroa egunekoa, okupazionala edo egoitza den aintzat hartuta:
 - a) Espazio pribatu bat edukiko dute, baita partekatutako espazio eta logeletan ere.
 - b) Beren logela erabateko askatasunez erabiliko dute eta han nahi duten guztietan egon ahalko dira, ez soilik alde zuzenetik zehaztutako uneetan. Gainera, lo egiteko ez ezik egongela gisa edo bisitak hartzeko ere erabili ahalko dute. Erabiltzean, partekatutako logelei dagokienez, logelako kidearen intimitaterako eta pribatutasunerako eskubidea errespetatu beharko da.
 - c) Pertsonak ulertzeko eta erabakitzeko gaitasuna mugatuta ez badute eta mugikortasuna gordetzen badute, nahi izanez gero, logela giltzaz itxi ahalko dute. Behar denean zailtasunik gabe sartzeko ahalbidetzen duen sistema bat prestatu beharko da.
 - d) Pribatutasuna inguruabar orotan bermatuta edukiko dute, bereziki pertsonak komunean edo beren burua apaintzen daudenean, baita erabiltzaileak guztiz edo zati batean biluzik dauden beste edozein egoeratan ere.
 - e) Nahi badute beren gauzak giltzapean gordetzeko bidea ematen dien armairu bat edukiko dute.
 - f) Beren espazio pribatua beren gustura dekoratuko dute, ahal den neurrian beren tresnez pertsonalizatuz.
 - g) Bisitak jaso eta nahi dituzten pertsonekin komunikatuko dira, telefonoz, posta elektronikoz edo posta arruntaz, pribatutasunean.

- h) Logelaren pribatutasunaz gozatuko dute. Horretarako, langileek sartu baino lehen atea jo beharko dute, erantzuteko gai diren pertsonak sartzera gonbidatu arte itxaron eta logeletan sartzean agurtu.
- i) Bermatuta izango dute dagokien informazio pribatuaren konfidentzialtasuna, datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako baldintzetan, eta profesionalek egin behar duten esku-hartzeari edo hartu behar duten erabakiari zuzenean lotutako informazioa baino ez dute erabiliko; beraz, ez dira sartuko haiei lotuta ez dauden datu edo edukietan. Informazio pribatuaren batean sartu behar bada, pertsonari jakinaraziko zaio nola erabiliko den eta haren baimena eskatuko zaio ahalik eta arretarik onena eskaintzeko behar duten beste profesional batzuekin edo erakundeekin partekatzeko.
- j) Eguneroko arretan dagokien informazioaren konfidentzialtasuna bermatuta edukiko dute. Beraz, profesionalek erabiltzaile bati eragiten dioten kontu pertsonalei eta barneko kontuei buruzko iruzkinak egitea saihestu beharko dute eta, oro har, profesionalen artean, horrelako kontuei buruzko beharrezkoak ez diren iruzkinak saihestu beharko dituzte.

9. artikulua.- Autodeterminaziorako eskubidea.

1. Estatutu honen ondorioetarako, modu burujabeaz jarduteko eta pentsatzeko gaitasunari eta aukerari esaten zaio autodeterminazioa, nolabaiteko arrisku kalkulatu gain hartzeko ahalmena barne.
2. Hura eraginkortasunez gauzatzeko neurri hauek hartu behar dira, zentro bakoitza egunekoa, okupazionala edo egoitza den aintzat hartuta eta erabiltzaileek ulertzeko eta erabakiak hartzeko dauzkaten mugak ere kontuan hartuta:
 - a) Erabiltzaileei zentroan sartu baino lehen hori bisitatzeko aukera emango zaie, erabakia informazio gehiagorekin hartu ahal izan dezaten.
 - b) Euren bizi estiloa hautatzeko eta parte hartzeko gaitzat joko dira, behar diren laguntza tekniko eta/edo pertsonalekin, zuzenean edo zeharka eragiten dieten erabakietan eta haien aukerak, nahiak eta lehenespenak errespetatuko dira.
 - c) Zerbitzuaren antolamenduari eta arretaren eta erabiltzaileen artean zein horien eta profesionalen artean ezartzen diren harreman-ereduen ohiko praktikei eragiten dieten kontuei buruzko kontsultak egingo zaizkie, aldizka.
 - d) Informazio osoa eskuratuko dute, era ulergarrian eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen premietara egokitutako formatuetan, eragin liezaieketen kontu guztiei buruz: osasun egoera, tratamenduak eta zerbitzuak.
 - e) Ez dira beren nahiaren aurka jardutera behartuko.
 - f) Jardueretan eta zerbitzuetan parte hartzeari uko egin ahalko diote.
 - g) Tratamendu bati uko egin ahalko diote, azaroaren 14ko 41/2002 Legeak, pazientearen autonomia, eskubideak eta informazioari eta dokumentazio klinikoari buruzko betebeharrak arautzen dituen oinarritzko legeak, ezarritako baldintzetan.
 - h) Euren ondasunak erabili eta euren finantza pertsonalak kontrolatuko dituzte eta maiztasunez eta eskatzen duten guztietan emango zaie haien kontuen egoeraren berri.

- i) Iradokizunak eta kexak aurkezteko dauden bideetarako sarbidea edukiko dute, baita indarreko legerian xedatutako errekurso administratiboa edo judiziala aurkezteko edozein bidetarako sarbidea ere.
- j) Jasotzen dituzten zerbitzuen prezioa eta horien edozein aldaketa jakingo dituzte.
- k) Zentroko hauteskunde-prozesuetan parte hartuko dute, zentroen estatutu honen eranskin gisa jasotako hauteskunde-araudian xedatutako baldintzetan.
- l) Antolatzen diren batzordeetan, lantaldeetan eta jardueretan parte hartuko dute.
- m) Baja eman ahaliko dute zerbitzuan.

10. artikulua.- Autonomia edo independentzia funtzionalerako eskubidea.

1. Estatutu honen ondorioetarako, erabiltzaileek modu autonomoan moldatzeko beharrezkoa den gaitasun fisikoa sustatuta izateko eta independentzia horren alde egiteko behar diren laguntzak eta egokitzapenak jasotzeko duten eskubideari esaten zaio autonomiarako edo independentzia funtzionalerako eskubidea.
2. Benetan gauzatzeko, neurri hauek hartu behar dira, zentroa egunekoa, okupazionala edo egoitza den aintzat hartuta:
 - a) Bermatuko da eraikina kanpoan zein barruan irisgarria dela mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat, bai arazoak desgaitasun fisikoren bati lotuta daudenean, bai desgaitasun intelektual edo sentsorialen bati lotuta orientatzeko edo komunikatzeko zailtasunei lotuta daudenean.
 - b) Autonomiari eustearen alde egiteko helburuarekin, pertsonen benetan behar duten motako eta intentsitateko laguntza eskainiko zaie eta egin ahal dituzten jarduerak edo keinuak beren erritmoan egitea ahalbidetuko da, jarduerak hein batean edo guztiz autonomoki gauzatzeak denbora gehiago eskatu arren.
 - c) Istripuak eta erorikoak saihesteko jarraibideak eta protokoloak kontuan hartuko dira, autonomia sustatzeko eta mendetasuna saihesteko neurri gisa.
 - d) Mugikortasun-arazoak dituzten erabiltzaileek ahalik eta autonomia handienarekin eta segurtasunarekin moldatzeko beharrezkoa den ekipamendu egokia edukiko da.
 - e) Alarma-txirrin irisgarriak edukiko dira.
 - f) Haien beharretara egokitutako altzariak eta laguntza-produktuak edukiko dira.
 - g) Haiek komunitate ingurunera eta komunitate zerbitzuetara iristea sustatuko da.

11. artikulua.- Hautatzeko eskubidea.

1. Estatutu honen ondorioetarako, zenbait aukeraren artean askatasunez hautatzeko posibilitateari esaten zaio hautatzeko eskubidea.
2. Benetan gauzatzeko, neurri hauek hartu behar dira, zentroa egunekoa, okupazionala edo egoitza den aintzat hartuta:
 - a) Berariaz aitortuko da zentroaren xede nagusietako batek erabiltzaileek beraiek izateko eta, ahal den neurrian, eduki nahi duten bizimodua aukeratzeko posibilitatea dutela bermatzea izan behar duela.

- b) Laguntza-jarduna erabiltzaileen bizimoduetara egokituko da, bizimoduok sistematikoki antolamenduaren komenigarritasunaren baldintzapean utzi beharrean, eta arreta-estilo malgua, arreta jasotzen duten pertsonen egoeran eta beharretan igarritako aldaketen arabera egokitzen dena eta eboluzionatzen duena, sortuko da.
- c) Ez zaizkie askatasunak edo aukeratzeko posibilitateak murriztuko murrizteko premia benetan sortu baino lehen.
- d) Pertsoneri antzeko beste batzuekin erlazionatzeko, bakarrik ala norbaitekin egotea aukeratzeko, parte hartu nahi ez duten jardueretatik urruntzeko edo bisitak jasotzeko bide ematen dieten askotariko espazioak egongo dira. Zerbitzu txikietan, espazio-aniztasunik ez badago, zona eskuragarrien erabilera optimizatuz eta malgutuz arindu ahalko da egoera.
- e) Denek erabiltzeko egunkari, aldizkari eta liburu nahikoak jarriko dira erabiltzaileen esku, baita telebista bat, DVD irakurgailu bat, musika-aparatu bat edo aisialdiko beste ekipamendu batzuk ere. Halaber, WIFI zona bat egongo da.
- f) Geletan konexioak jarriko dira telebista antenara, eta bermatuko da geletatik WiFi eskura daitekeela.
- g) Komunitate-zerbitzuetarako sarbide erraza bermatzeko baliabideak jarriko dira.
- h) Erabiltzaileei interesatzen zaizkien jardueren (askotarikoak eta nahikoak izan behar baitute) programazioari buruzko lehenespenean inguruko kontsultak egingo zaizkie eta kanpoko jarduerak suspertuko dira.
- i) Oinarrizko ordutegietan nolabaiteko malgutasuna sartuko da, erabiltzaileen ohitura eta lehenespen pertsonalak errespetatzeko helburuarekin.

12. artikulua.- Norberaren gogobetetasunerako eta errealizatorako eskubidea.

1. Estatutu honen ondoretarako, gogobetetasunerako eskubidea eguneroko bizitzaren alderdi guztietan norberaren asmo eta gaitasun guztiak egiteko aukera da, kasuen arabera, euren bizi proiektuarekin jarraitu ahal izateko edo euren bizi proiektua diseinatu eta garatu ahal izateko.
2. Euren eskubideak gauzatzeko, erabiltzaileek, zuzenean edo zeharka, estatutu honen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatuko dute.
3. Benetan gauzatzeko, neurri hauek hartu behar dira, zentroa egunekoa, okupazionala edo egoitza den aintzat hartuta:
 - a) Zentroaren esparruan bizi-kalitatea hobetzeko aukera edukiko dute, ingurune ziu, erabilgarri eta eroso batean moldatuz, eta gaitasun fisikoak, intelektualak, emozionalak eta sozialak maximizatzeko beharrezkoak diren laguntza eta estimulua edukiko dituzte.
 - b) Antolamenduaren interesei lehentasuna ematen dieten laguntza-errutinen eta prozeduren ondorioz erabiltzaileen eskubideak murrizteko arriskuak saihesten diren ingurunean egongo dira.
 - c) Euren autonomia ahalik eta gehien garatuko dute. Horretarako, kalkulaturako arrisku maila jakin batzuk hartzeko, neurri murriztaileak ez aplikatzeko -preskripzio medikorik ezean eta jarduteko protokolo eta gidaliburuetan ezarritako jarraibideei

dagokienez- eta laguntza produktuak eta euren banako premietara egokitzen diren ingurune fisikoaren egokitzapenak edukitzeko aukera izango dute.

- d) Aldi baterako kanpoan egon ostean, zentroan zuten plazan berriro sartu ahalko dira, indarrean dagoen araudian ezarritako mugekin.
- e) Kalitate oneko banakako arreta jasoko dute. Horretarako, dibertsitate funtzionala duen pertsona bakar eta bereizitza joko da, arreta-ereduak erabat egokituko dira haren beharretara, modu pertsonalizatuan, eta haren berezitasunak, balioak eta lehenespenak kontuan hartuko dira.
- f) Banakako arreta plana (BAP) izango dute. Pertsonarengan ardaztutako plangintzaren ikuspegitik egingo da hura, aldi behin berrikusiko da, eta hura definitzean erabiltzaileak parte hartuko du, behar diren laguntza tekniko eta/edo pertsonalekin.
- g) Gutxienez erreferentziako pertsona bat esleituta edukiko dute. Harekin konfiantzazko harremana edukiko dute edo garatu ahalko dute eta hark, besteak beste, banakako arreta plana (BAP) prestatzeko eta horren aplikazioaren jarraipena egiteko aktiboki parte hartuko du.
- h) Adin bereko pertsonen ohiko bizimoduarekin bat datorren bizitza izateko aukera edukiko dute.
- i) Ohiko familia-ingurunearekiko, ingurune afektiboarekiko eta sozialarekiko harremani eutsiko diete.
- j) Garraibide irisgarria izango dute, zentrori iristea erraztuko diona eta erabiltzailearen ordutegi premietara egokituko dena.
- k) Osasuneko, gizarte-zerbitzuetako, aisialdiko edo hezkuntzako laguntza-zerbitzu komunitarioetara eta profesionalengana jo ahalko dute.

13. artikulua.- Norberaren eskubideak ezagutzeko eta defendatzeko eskubidea.

1. Estatutu honen ondorioetarako, antolamendu juridikoak aitortutako eskubideak benetan gauzatzea ahalbidetzen duten bideak erabiltzeko aukerari esaten zaio eskubideak ezagutzeko eta defendatzeko eskubidea.
2. Benetan gauzatzeko, neurri hauek hartu behar dira, zentroa egunekoa, okupazionala edo egoitza den aintzat hartuta:
 - a) Idatziz eta ahoz, haien ulermen-maila eta -gaitasunera egokitutako hizkeran eta, hala badagokio, haien behar bereziei egokitutako euskarri edo formatu batean, jakinaraziko zaizkie estatutu honetan jasotako eskubideak, baita zentroen garapen-araudia eta funtzionamendu-erregelamenduek aplikazioan jasotzen dituzten eskubideak ere.
 - b) Zerbitzuak emango zaizkien zehaztapenak eta baldintzak biltzen dituen idatzizko kontratu bat edukiko dute. Titulartasun publikoko zentroetan, plaza onartzeko agiriak beteko du kontratuaren funtzioa, hala badagokio, partaidetza ekonomikoko baldintzei buruzko agiriarekin batera.
 - c) Zerbitzuaren funtzionamendua eta antolaketa arautzen dituzten arauak eta erregelamenduei buruzko informazioa jasoko dute.

- d) Barruko eta kanpoko ebaluazioetan, kalitatea hobetzeko prozesuetan eta zentroaren funtzionamendua dela-eta egiten diren ikuskapen-prozeduretan parte hartuko dute.
- e) Herritar-izaerari datzekion herritar-eskubideak gauzatu dituzte.
- f) Hala badagokio kanpoko instantzietara jotzea ahalbidetzen duen kexa-prozedura formal batera jotzeko eta zentroaren funtzionamendua edo emandako arretaren kalitatea hobetzea xede duten iradokizunak aurkezteko aukera edukiko dute.
- g) Osasun-egoera babestuta edukiko dute, prebenitzeko eta osasuna sustatzeko jarraibideak aplikatuz. Halaber, osasun-egoeraren berri emango zaie eta beharrezkoa bada osasun-zerbitzuetarako sarbidea edukitzeko orientabide eta laguntza egokiak edukiko dituzte.
- h) Nahi izanez gero, beharrak ebaluatzeko eta banakako arretako plana (BAP) egiteko dituzten elkarrizketetan haien ustez aholkatzeko gai den pertsona baten edo batzuen laguntza izango dute.
- i) Zuzenean eragiten dieten erabakiei buruzko kontsultak egingo zaizkie.
- j) Lagundutako erabakiak hartzeko eta, beharrezkoa bada, ordezkatuak izateko laguntza tekniko eta/edo pertsonalak izateko eskubidea dutela jakinaraziko zaie.
- k) Erabakien aurretiazko plangintza (EAP) egiteko aukeraren berri emango zaie eta laguntza jasoko dute. Horren bidez, familiak eta profesionalak erabiltzailearen nahiekin, usadioekin eta ohiturekin bat etorritz jardun ahalko dute. Plangintza horren esparruan, etorkizunean, autogobernu-gaitasuna galduz gero, ordezkatzeari nahi duten pertsona izendatu ahalko dute eta aurretiazko borondateen agiria sinatu ahalko dute.
- l) Jakinaraziko zaie zentroan erabakiak nola hartzen diren (esaterako, nola finkatzen diren ordutegiak, nola erabakitzen diren menuak, nola programatzen jarduerak, etab.) eta erabaki horietan nor esku hartzen duen.
- m) Zentroaren funtzionamenduan parte hartzeko bideak badaudela jakinaraziko zaie eta horietan parte hartu ahalko dute, estatutu honetan araututako taldean parte hartzeko organoen bidez.

2. atala.- Erabiltzaileen betebeharrak

14. artikulua.- Betebeharren zerrenda.

1. Oro har, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroen erabiltzaileek abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte-zerbitzuei buruzkoak, eta apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak, zeinaren bidez onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea, ezarritako betebeharrak edukiko dituzte.

Euren betebeharrak betetzeko, erabiltzaileek estatutu honen 3. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jokatu dute, zuzenean edo zeharka (betebeharraren izaeragatik, hura betetzeko erabiltzailea ez den pertsona bati eska dakiokenean).

2. Zehatz-mehatz, atal honetan araututako betebeharrak edukiko dituzte.

15. artikulua.- Araudia betetzea.

1. Erabiltzaileek zentroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituzten araudien edukia ezagutu eta betetzeko betebeharra daukate, bereziki estatutu honi eta erabiltzaile diren zentroko barne-araubideko araudiari dagokienez. Horretarako, informazio hau 6.4 artikuluan xedatutako moduan jakinarazi beharko da.
2. Era berean, erabiltzaileek, zentroan dauden bitartean, sartzeko foru-aldundiko araudian eta autonomia-erkidegoko araudian eskatzen diren betekizunak bete behar dituzte, bereziki, urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, ezarritakoak, besteak beste, gaixotasun infekzioso eta kutsagarria edo buruko gaixotasuna edukiz gero dagokion tratamenduari uko ez egitekoa. Kasu guztietan, betekizun horiek aplikatzean, azaroaren 14ko 41/2002 Legeak, pazientearen autonomia, eskubideak eta informazioari eta dokumentazio klinikoari buruzko betebeharrak arautzen dituen oinarritzko legeak, ezarritako mugak eta baldintzak errespetatu beharko dira.

16. artikulua.- Bizikidetasun-arauak betetzea.

Erabiltzaileek, euren gaitasun eta posibilitateen barruan, zentro bakoitzeko barne-araubideko araudian jasotako bizikidetzeta eta elkarrekiko begirune arauak bete behar dituzte, eta hori zentroen barruan zein bertako jarduerari lotutako beste edozein tokitan.

17. artikulua.- Pertsonak errespetatzea.

1. Erabiltzaileek estatutu honetan aitortutako eskubide guztiak errespetatzeko betebeharra dute, bereziki, zentroetako gainerako erabiltzaile guztien eta profesionalen duintasunerako eta pribatutasunerako eskubidea, baita edozein arrazoi dela medio dakiten informazioaren konfidentziasunerako eskubidea ere.
2. Erabiltzaileek, beste erabiltzaile eta profesionalakiko harremanetan, izan behar duten portaeran, ez dute jaiotza, sexua, sexu joera, genero identitatea, genero adierazpena, arraza, jatorri nazional, etniko edo soziala, erlijioa, sinesmena, ideologia, iritzia, kultura, hizkuntza, egoera fisiko, psikiko edo sensoriala, gaixotasuna, egoera ekonomikoa edo beste edozein inguruabar pertsonal, familiar edo sozial direla eta inor baztertuko.

18. artikulua.- Instalazioak errespetatzea.

Erabiltzaileek instalazioak, altzariak eta zentroan haien esku dauden gainerako tresnak modu egokian eta erantzukizunez erabili behar dituzte.

19. artikulua.- Anomalien eta irregulartasunen berri ematea.

Erabiltzaileek parte-hartze batzordeari, zuzendaritzari edo kasu bakoitzean adierazten diren profesionali jakinarazi behar dizkiete zentroaren funtzionamenduan, antolaketan edo instalazioetan igartzen dituzten irregulartasunak edo anomaliak.

20. artikulua.- Prezio publikoa ordaintzea.

Erabiltzaileek, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako gizarte-zerbitzuei aplikatzen zaizkien prezio publikoak arautzen dituen araudiaren arabera, dagokion prezio publikoa puntualki ordaindu beharko dute. Era berean, prezio osoa ordaindu ezin badute, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aldeko zorra aitortzeko agiria sinatu behar dute.

21. artikulua.- Banakako arretako plana (BAP) betetzea.

Erabiltzaileek banakako arreta plana (BAP) eraginkortasunez aplikatzea erraztu behar dute eta horretarako elkarlanean aritu behar dute. Plan hori beren beharretara edo lehenespenetara jadanik

egokitzen ez dela uste badute, erreferentziako profesionalarekin hitz egitea komeni da, aurreikuspenak birdoitu behar diren aztertzeko.

22. artikulua.- Osasunari lotutako arauak betetzea.

1. Erabiltzaileek eta, hala badagokie, haien legezko ordezkariak edo erabakiak hartzen laguntzen dietenek (bereziki, senideek edo bestelako pertsona hurkoek) ardura hartu beharko dute zentroak beraien osasunari lotutako alderdiei buruzko informazio etengabe eguneratua izan dezan (tratamendu aktiboa, alergiak, gaixotasun akutua edo kronikoa, medikamentu jakin batzuekiko jasanezintasuna, krisi epileptikoak, etab), eta horretarako kasu bakoitzean behar diren txosten medikoak aurkeztuko dituzte.
2. Orobat, gaixotasun infektokutsakorrek prebenitu eta artatzeari lotuta osasun mailan indarrean dagoen araudia beteko dute eta ardura hartuko dute, behar dutenean, osasun mentaleko zerbitzuetara eta, kasuan kasu, zerbitzu horiek preskribatutako tratamendua betetzera joateko.
3. Pertsona bat gizarte zerbitzuetako zenbait zentroren erabiltzaile bada, azken horiek osasun arretari lotutako informazioa partekatuko dute.
4. Medikazioa emateko, arloan indarrean dagoen protokoloan xedatutakoa beteko da.
5. Eguneke eta okupazio zentroen kasuan, erabiltzaileek ekidingo dute gaixotasun sintomak dauzkaten zentroa joatea.
6. Zentroek premiazko erabakiak hartu ahalko dituzte, osasun arrazoiengatik, eta ondoren haien berri emango die, kasuan kasu, legezko ordezkariari edo egitatezko zaintzaileari, edo erabiltzaileari erabakiak hartzen laguntzen dietenei.

II. KAPITULUA.- PROFESIOALEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

1. atala.- Profesionalen eskubideak

23. artikulua.- Eskubideen zerrenda.

1. Oro har, estatutu honen menpeko dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroetako profesionalak lan-eremuan edo funtzio publikoaren eremuan legeriak eta hitzarmen kolektiboei edo aplikagarriak diren enplegu-baldintzak arautzen dituzten akordioak aitortzen dizkieten eskubide guztiak edukiko dituzte.
2. Zehatz-mehatz, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte-zerbitzuei buruzkoak, eta apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak, zeinaren bidez onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea, aitortutako eskubideak edukiko dituzte. Era berean, atal honetan aitortutako eskubideak edukiko dituzte.

24. artikulua.- Duintasunerako eskubidea.

1. Profesionalek, beren funtzioak betetzean, duintasunerako, hau da, pertsona gisa duten berezko balioa aitortuta edukitzeko, eskubidea dute.
2. Benetan gauzatzeko, erabateko errespetuaz, zuzentasunez eta ulermenez tratatu behar dituzte bai zerbitzuko arduradunek eta gainerako profesionalak bai erabiltzaileek eta erabakiak hartzen laguntzen dieten pertsonak, senideek eta hurbileko beste pertsonak.

25. artikulua.- Berdintasunerako eskubidea.

Desgaitasuna duten pertsonentzako zentroetako profesionalek beren lanbide-jarduera berdintasun-egoeran betetzeko eskubidea daukate.

26. artikulua.- Prestakuntza jasotzeko eskubidea.

1. Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroetako profesionalek hasierako informazioa eta orientabidea jasotzeko eskubidea daukate, arretaren kalitatea bermatzeko eta erabiltzaileen premietara egokitzeko asmoz eta profesionalak zerbitzuaren edo zentroaren ezaugarrietara egokitzeko helburuarekin.
2. Halaber, bizitza aktibo osoan etengabeko lanbide-prestakuntza jasotzeko eskubidea dute, emandako arreta lanbide-jardunbide egokiaren eruedetara egokitzen dela bermatze aldera.
3. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak etengabeko prestakuntzako plan horiek eta profesionalak birgaitzea, ezagutzak hobetzea, haien lanbide-gaitasunak arreta eman behar dieten biztanleen ezaugarrietara eta sektorean egindako azterketa eta ebaluazioen emaitzetara hobeto egokitzea ahalbidetzen duten neurriak ezartzea sustatuko du.

27. artikulua.- Parte hartzeko eskubidea.

1. Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroetako profesionalek eragiten dieten erabakietan eta zentroon antolaketan banaka eta taldeka parte hartzeko zein horko arretaren kalitatea eta funtzionamendua etengabe hobetzen laguntzeko eskubidea dute.
2. Eskubide hori benetan gauzatzen dela bermatzeko, profesionalek aukera hauek dauzkate:
 - a) Ikuskapen-prozeduretan entzun ahal zaie.
 - b) Zerbitzuak ebaluatzeko prozesuetan eta kalitatea hobetzeko prozesuetan parte hartu ahal dute.

28. artikulua.- Zerbitzuaren kalitaterako eskubidea.

1. Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroetako profesionalek dagokien araudiak eskatutako kalitate-irizpideei erantzuten dien zerbitzu bat ematen dela bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak edukitzeko eskubidea dute.
2. Benetan gauzatzen dela bermatzeko, profesionalek Arabako Foru Aldundia hertsia dezakete:
 - a) Indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz zentroen ikuskapena dela-eta dagozkion funtzioak bete ditzan, eska dakizkiokeen betekizun materialak, funtzionalak eta langileriakoak betetzen direla bermatzeko.
 - b) Zerbitzuari aplikatu ahal zaizkion betekizun materialei, funtzionalei eta langileriakoei buruzko informazio egokia susta dezan.
3. Halaber, hauek eska diezaiekete, kasuan kasu, mendeko diren erakundeei:
 - a) Lanbide-jardunbide egokiko eskuliburuak edo gidak eta, hala badagokio, jarduteko protokolo zehatzak haien esku jar ditzaten, beren funtzioak ondo betetzeko egokienak diren jarduketa-ereduez orientatzeko, erabiltzaileekiko, laguntzaileekiko eta gainerako profesionalekiko harremanetan.
 - b) Barruko eta kanpoko ebaluazioak eginez zerbitzuen kalitatearen hobekuntza susta dezaten.

- c) Arretaren kalitatea etengabe hobetzeko prozesuak aplikatuz zerbitzuen kalitatearen hobekuntza susta dezaten.

2. atala.- Profesionalen betebeharrak

29. artikulua.- Betebeharren zerrenda.

1. Oro har, estatutu honen menpeko dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroetako profesionalak, zentrootitulartasun publikoak zein pribatukoak izan, beren jarduketan lan-araudiak eta lanbidearen arabera aplikagarria den legeriak ezartzen dizkien eginbeharretara egokitu beharko dute eta esku-hartzea hala badagokio beren diziplinako kode deontologikoak biltzen dituen orientabideetara egokitu beharko dute.
2. Zehatz-mehatz, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte-zerbitzuei buruzkoak, gizarte-zerbitzuetako profesionalentzat eta apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak, zeinaren bidez onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea, ezarritako betebeharrak edukiko dituzte. Era berean, atal honetan ezarritako betebeharrak edukiko dituzte.

30. artikulua.- Pertsonak errespetatzea.

1. Profesionalek estatutu honetan aitortutako eskubide guztiak errespetatzeko betebeharra dute, bereziki, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroetako erabiltzaileen eta gainerako profesional guztien duintasunerako eta pribatutasunerako eskubidea, baita beren funtzioak betetzeagatik edo beste edozein arrazoirela medio dakiten informazioaren konfidentziasunerako eskubidea ere.
2. Betebehar hori benetan betetzeko, hauxe egin behar da:
 - a) Erabiltzaileari buruzko informazioa arduraz erabili behar da. Horretarako, informazioa eskuratzean begirunetsuak izan behar dute, beharra justifikatu behar dute eta esku-hartze koordinatu eta eraginkor baterako beharrezkoa denean erabiltzeko baimena eskatu behar dute, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak, xedatutako baldintzetan.
 - b) Beste erabiltzaile eta profisionalekiko harremanetan, izan behar duten portaeran, ez dute jaiotza, sexua, sexu joera, genero identitatea, genero adierazpena, arraza, jatorri nazional, etniko edo soziala, erlijioa, sinesmena, ideologia, iritzia, kultura, hizkuntza, egoera fisiko, psikiko edo sensoriala, gaixotasuna, egoera ekonomikoa edo beste edozein inguruabar pertsonal, familiar edo sozial direla eta inor baztertuko.
 - c) Pertsonak askatasunez hitz egiteko eta komunikatzeko duten eskubidea eraginkortasunez gauzatzen lagunduko dute, behar diren laguntza teknikoak edo pertsonalak emanez. Zehazki, oinarritzko ezagutzak eskuratuko dituzte zeinu-hizkuntza edo ordeko komunikaziorako laguntza produktuak erabiltzeko.
 - d) Behar den egiaztagiria izango dute profesionalak identifikatu ahal izateko.
 - e) Erabiltzaileek, beharrezkoa bada erabakiak lagunduta hartzeko behar diren laguntza tekniko eta/edo pertsonalekin, hartutako iritzia, irizpideak eta erabakiak errespetatuko dituzte.
 - f) Erabiltzaileek egin beharreko esku-hartze profisionalean parte hartzea erraztu behar dute.

- g) Erabiltzailea beste zerbitzu batera edo batzuetara bideratu behar bada, harentzat onuragarrien den moduan egin beharko du, esku-hartzea jarraitua izan dadin.

31. artikulua.- Araudia betetzea.

Profesionalek gizarte-zerbitzuen eremuan indarrean dagoen araudia eta, bereziki, jarduten duten dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroyen antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituzten arauak ezagutu eta betetzeko betebeharra dute.

32. artikulua.- Bizikidetasun-arauak betetzea.

Profesionalek bizikidetasuneko eta elkarrenganako errespetuko araudiak betetzeko betebeharra dute lan egiten duten zentroetan eta beren lanbide-jarduerekin zerikusia duen beste edozein tokitan.

33. artikulua.- Instalazioak errespetatzea.

Profesionalek lan egiten duten dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroetako eta beren lanbide-jarduerekin zerikusia duen beste edozein tokitako ondasun higigarriak eta instalazioak behar bezala errespetatzeko eta erabiltzeko betebeharra dute.

34. artikulua.- Komunikatzeko eginbeharra.

1. Jarduera dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroetan betetzen duten profesionalek haien iritziz, eta dituzten balioespen-elementuetan oinarrituta, eskubideak urratzea ekar lezakeen edozein egoera agintaritzaren eskudunari jakinarazteko betebeharra dute, indarrean dagoen legerian xedatutako baldintzetan.
2. Halaber, arretan, funtzionamenduan, antolaketan edo zentroko instalazioetan ikusten dituzten irregulartasun edo anomalien berri eman behar diete zerbitzuaren arduradunari edo, beharrezkoa baderitzote, desgaitasuna duten pertsonen arloko zuzendariordetzako arduradunari edo, kasu bietan, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailean gizarte zerbitzuen ikuskaritzaren arloan eskudun den zerbitzuari.

III. TITULUA.- DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN PERTSONENTZAKO ZENTROETAN SARTzea

35. artikulua.- Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroetan sartzea.

Gizarte-zerbitzuen foru-sarean sartutako dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako eguneko, okupazio edo egoitza-zentroetarako sarbidea 36/2014 Foru Dekretuan jasotako sarbide-araudian xedatutakoaren menpe dago, bai sartzeko beharrak, betekizunak eta ordena balioesteari dagokionez bai sartzeko eta lekualdatzeko prozedurari dagokionez.

36. artikulua.- Laguntzen beharra egoitzan sartu ondorengo erabakiak hartzeko.

1. Sartzeko prozeduraren esparruan Fiskaltzari eman behar zaio egoitza-zentroetako sarreraren berri. Hala ere, egoitza-zentroan sartu ondoren bertako zuzendaritzak uste duenean erabiltzaileak dagozkion erabakiak hartzeko laguntza teknikoak eta/edo pertsonalak behar dezakeela, egoera horren berri emango dio erabiltzaileak aurretiaz laguntza eginkizun hori betetzeko izendatu duen pertsonari edo, hura ezean, haren erreferentziako senideari, egitatezko zaintzaile izendatzeko eta pertsonari erabakiak hartzen lagundu diezaion, haren eskubideen defentsa eta babesa zainduz.
2. Arestiko kasuan aurreikusitako kasuetan pertsona babesgabe dagoela ikusten bada, erabakiak hartzen lagundu diezaiokeen senide hurkorik ez duelako edo legezko ordezkari

edo egitatezko zaintzaile diharduenarengan pertsonaren eskubideen defentsa eta babesa zaintzeko betebeharra oker betetzen duela edo betetzen ez duela sumatzen delako, zentroko zuzendaritzak edo arduradunak GOFeko desgaitasunaren arloari emango dio egoeraren berri, horri buruzko txostena bidaliz. Desgaitasunaren arloak egoera aztertu eta, beharrezkoa baderitzo, erakundeko Kudeaketako Zuzendaritzari jakinaraziko dio. Hark, kasua aztertu ondoren, beharrezkoa balitz Fiskaltzari bidaliko dio, urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak, Prozedura Zibilarenak, 757.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako neurriak har ditzan.

37. artikulua.- Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroetara joatea.

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak gizarte-zerbitzuen foru-sarean sartutako dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentro baten erabiltzaile-izaera onetsitakoan, pertsonak zentro zehatz bati buruzko informazioa eskatzen badu, bisitatzeko aukera izango du sartzearen edo zerbitzua erabiltzen hastearen inguruko erabakirik hartu baino lehen.
2. Gizarte-zerbitzuen foru-sarean sartutako dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako eguneko, okupazio edo egoitza-zentroetan sartzea eta, ondorioz, zentro horien erabiltzaile-izaera eskuratzea, 36/2014 Foru Dekretuak 86. eta 87. artikuluetan xedatutakoaren menpe geratuko da, zentro batean benetan sartzeari eta egokitze-aldiari dagokienez. Halaber, eredu hauekin bat etorri beharko du:
 - a) Sartzeko prozeduraren esparruan eskatzaileari plaza bat esleitu ondoren, plaza adjudikatzeko ebazpenean adierazten den zentroa joan behar du, aipatutako ebazpenean edo ondoko jakinarazpen batean zehaztutako egunean.
 - b) Eskatzailea ezarritako egunean zentroan sartzen ez bada Foru Administrazioari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik, plazari uko egin diola pentsatu ahal izango da, salbu eta inguruabar bereziak direla eta onuraduna zentroan sartu ezin bada. Horrelakoetan interesdunak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari eskatu ahal izango dio zentroan sartzeko eguna aldatzeko. Eskaeran arrazoiak azaldu behar dira.
3. Edozein zentrotara sartzek honako hau ekarriko du:
 - a) Funtzionamendu-arauak onartzea.
 - b) Prezio publikoak arautzen dituen foru-araudian xedatutakoaren arabera ordaindu behar den prezio publikoa onartzea eta ordaintzeko konpromisoa hartzea.
 - c) Egoitza-zentroei dagokienez, zentro edo zerbitzu horretan erroldatzeko betebeharra ere ekarriko du. Pertsonak erroldatzeko betebehara hori onartzen ez badu, sartzek ukatu ahal izango da, betebehara hori ez betetzea aitortutako eskubideari uko egitea dela ondorioztatuta.
4. Eskatzaileari edo, hala badagokio, ordezkatzeko duenari, esleitutako zentroaren barne-funtzionamendua zuzentzen duten arauen berri emango zaio eta, estatutu honen kopiaz gain, barne-araubideko araudiaren eta informazio-liburuxkaren kopia bana emango zaio (estatutu honen 40. eta 41. artikuluetan araututa daude, hurrenez hurren).

38. artikulua.- Egokitze-aldia.

1. Gizarte-zerbitzuen foru-sareko zentro batean sartu eta gero, pertsonak zentroaren ezaugarrietara eta funtzionamendura egokitzeko aldi bat izango du. Aldi horrek gehienez 3 hilabete iraungo du eta, bitartean, integrazioa errazteko helburuarekin, erabiltzaileak beharrezkoak diren laguntza teknikoak jasoko ditu.

2. Egokitze-aldi horretan pertsona egokitzen ez dela igartzen bada, zentroko zuzendaritzak edo arduradunak —diziplinarteko taldeak proposatuta— eta erabiltzaileak berak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Desgaitasuna duten Pertsonen Arloko Zuzendariordetzari jakinarazi behar diote, eta horrek egoera ebaluatu eta ebaluazio-txosten bat egingo du. Ebaluazio hori egiteko, elkarrizketa bat izango du erabiltzailearekin, eta azken hori bere erreferentziako pertsonak eta, beharrezkoa bada, erabakiak lagunduta hartzen laguntzen dion pertsonak edo haren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak lagunduta egon ahalko da.
3. Desgaitasuna duten Pertsonen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak erabiltzaileari emango dio ebaluazio txostenaren berri eta, beharrezkoa bada, baita erabakiak lagunduta hartzen laguntzen dion pertsonari edo bere legezko ordezkariari edo egitatezko zaintzaileari, 15 eguneko asteguneko epean nahi dituen alegazioak egin ditzan. Epealdi horretan alegaziorik aurkezten ez bada, prozedurak aurrera egingo du.
4. Alegazio-izapidea betetakoan, Desgaitasuna duten Pertsonen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak ebazpen-proposamen bat egingo dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Kudeaketako Zuzendaritzari; horren bidez, zentrorako sarrera baieztatuko da edo erabiltzailea beste zentro batera eramatea erabakiko da.
5. Desgaitasuna duten Pertsonen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak aurkeztutako proposamenean oinarrituta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Kudeaketako Zuzendaritzak ebazpen arrazoitu bat emango du. Ebazpen horrek adierazten badu pertsonak zentro bateko erabiltzaile-izaera galdu duela eta beste zentro bat esleituko zaiola, zentro-aldaketa jakinarazpena egin eta hurrengo hilabetean egingo da.

39. artikulua.- Erabiltzaile-izaera.

- d) Gizarte-zerbitzuen foru-sareko dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroetako erabiltzaileak egoera hauetako batean egon ahalko dira:
 - a) Denboraldi jakin baterako altan.
 - b) Denboraldi mugagabean altan.
 - c) Aldi baterako bajaran, erabiltzaile-izaera aldi baterako eteteagatik; eteteko arrazoiak 36/2014 Foru Dekretuaren 74. artikuluan xedatutakoak dira.
- e) Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentro bateko erabiltzaile-izaera 36/2014 Foru Dekretuaren 75 artikuluan xedatuta dauden eskubidea iraungitzeko arrazoiengatik galduko da.

40. artikulua.- Barne-araubideko araudia.

Gizarte-zerbitzuen foru-sarean sartutako dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako eguneko, okupazio eta egoitza-zentroek barne-araubideko araudi bat eduki beharko dute, eta haren edukiak, nolnahi ere, alderdi hauek arautu beharko ditu:

- a) Zentroari buruzko oinarritzko datuak:
 - Identifikazio-datuak, kokapena eta kontaktua
 - Zentroaren definizioa eta helburuak
 - Zentroaren edukiera eta espazioen banaketa
- b) Sartzeko jarraibideak eta geratzeko baldintzak:
 - Sartzeko moduak
 - Sartzean hartutako konpromisoak eta geratzeko baldintzak
 - Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak..
 - Erreferentziako senidearen izendapena
 - Egokitze-aldia, egoitza-zentroetan

- Ordaindu beharreko prezioak eta ordaintzeko modua
 - Logelen esleipena; zehaztu beharko da erabiltzailea sartzen denean hutsik geratu den logelara joango dela, nahiz eta gero logelaz aldatzeko eska dezakeen.
 - Absentzia-araubidea
 - Zerbitzuan bajaran ematea
- c) Parte-hartzea
- Erabiltzaileari kontsultatzeko eginbeharra
 - Taldean parte hartzeko organoen bidezko partaidetza
 - Iradokizunen aurkezpena
 - Kexen aurkezpena
- d) Bizikidetzaren arauak:
- Jarraibide orokorrak
 - Zentroko espazioen erabilera
 - Kanporako irteerak eta zentrorako bisitak
 - Segurtasun-kontseiluak
 - Langileekiko harremanak

41. artikulua.- Informazio-liburuxka.

Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroek informazio-liburuxka bat, irudiduna eta erraz ulertzeko moduko hizkeran idatzia, eduki beharko dute; horretan, zentroko bizitzaren oinarriko alderdiak islatu beharko dira.

IV. TITULUA.- ANTOLAKETA- ETA FUNTZIONAMENDU-EGITURA

I. KAPITULUA.- ZENTROEN ZUZENDARITZA

42. artikulua.- Erantzukizunen esleipena.

1. Zentroko zuzendariak edo arduradunak du zentroak ondo funtzionatzeko ardura.
2. Zuzendaria edo arduraduna ez badago edo gaixorik badago, beharrezkoa bada, Desgaitasuna duten Pertsonen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak (titulartasun publikoko zentroetan) edo zentroa menpe dagoen erakunde pribatuak hura ordeztzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu eta zentroko gobernu batzarrari komunikatuko dio.

43. atala.- Eginkizunak.

Zentroko zuzendariak edo arduradunak zentroaren kudeaketa gain hartzen du eta hor funtzionamendua arautzen duten xedapen guztiak aplikatzen direla bermatzen du, Desgaitasuna duten Pertsonen Arloko Zuzendariordetza Teknikoaren menpe organikoki eta funtzionalki foru-titulartasun publikoko zentroetan eta kasuan kasuko erakunde pribatuaren menpe titulartasun pribatuko zentroetan.

II. KAPITULUA.- ERABILTZAILEEK TALDEAN PARTE HARTZEKO ORGANOK.

44. artikulua.- Erabiltzaileen partaidetza.

1. Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte-zerbitzuei buruzkoak, 9 j) artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen eta Profesionalen Eskubide eta Betebeharren Gutunak eta Iradokizunen eta Kexen Araubideak 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako

zentroetako erabiltzaileek eragiten dieten erabakietan eta zentrozen funtzionamenduan zuzenean, horretarako behar dituzten laguntza tekniko eta/edo pertsonalekin, edo zeharka, ordezkarien bidez, parte hartzeko eskubidea daukate. Horretarako, kapitulu honetan xedatutako taldean parte hartzeko organoetz baliatuko dira.

2. Aurrekoa gorabehera, 14 plazako edo gutxiagoko zentroetan, taldean parte hartzeko eskubidea kapitulu honetan xedatutakoez bestelako formulen bidez antolatu ahalko da, baldin eta eskubide hori benetan bermatzen badute eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailean zerbitzuak baimentzeko eta ikuskatzeko arloan eskumena duen zerbitzuak hala uste badu.
3. Gizarte-zerbitzuen foru-sarean sartutako dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentro bakoitzak taldean parte hartzeko bere organoak eduki beharko ditu, aurreko bi ataletan xedatutako baldintzetan. Parte hartzeko organo horiek ezingo dituzte bi zentrok edo gehiagok partekatu, nahiz eta eraikin berean egon eta erakunde beraren titulartasunekoak izan.

45. artikulua.- Taldean parte hartzeko organo-motak.

1. Taldean parte hartzeko organo hauek egongo dira:
 - a) Batzar Orokorra.
 - b) Parte-hartze Batzordea.
2. Orobat, zentroek beste bilera eta eztabaida foro batzuk eratu ahalko dituzte egin beharreko jardueri edo antolaketa arruntari lotutako kontuak jorratzeko, baina formula horiek ezin dute ordeztu arestiko puntuan adierazitako parte-hartze organoak.

1. atala.- Batzar Orokorra.

46. artikulua.- Batzarkideak.

1. Hauek osatuko dute Batzar Orokorra:
 - a) Zentroko erabiltzaile guztiek, zeinek honela jardun ahalko baitute:
 - Zuzenean, behar dituzten laguntza tekniko eta/edo pertsonalekin,
 - Erabakiak hartzen laguntzen dionaren, legezko ordezkariaren edo egitatezko zaintzailearen (senideak edo bestelako pertsona hurkoak) bitartez.
 - b) 50. artikuluan definitzen diren Parte-hartze Batzordeko berezko kideek.

Halaber, Batzar Orokorrera joan ahalko dira erabiltzaileen senideak edo bestelako pertsona hurkoak, aurreko puntuan aipatutakoak ez direnak.

47. artikulua.- Bileren aldizkakotasuna eta deialdia.

1. Batzar Orokorraren ohiko bilerak urtean behin egingo dira gutxienez, eta bilkura berezian, Parte-hartze Batzordeak erabakita, Batzar Orokorraren beraren ekimenez edo erabiltzaileen % 25ek arrazoituta eta idatziz eskatuta izaera horrekin deitu behar dela usten den guztietan.
2. Batzar bakoitzaren deialdia Parte-hartze Batzordeko idazkariak egingo du, gutxienez 7 egun lehenago. Zentroko iragarki-taulan argitaratuko da, ohikoa edo berezia den, eguna, ordua eta egingo den lekua, eta landuko diren gaien zerrenda adieraziz; orobat, postaz edo telematikoki bidaliko zaie aurreko artikuluan adierazitako pertsona guztiei.

48. artikulua. Batzar Orokorra eratzea.

1. Batzar Orokorra, lehen deialdian, erabiltzaileen % 50 badaude egongo da baliozkotasunez erata; bigarren deialdian, zenbat pertsona joaten den kontuan hartu gabe eratu da. Bigarren deialdi hori lehenerako ezarritako ordua eta ordu erdi geroago egin beharko da nahitaez.
2. Parte-hartze Batzordeko idazkariak batzarraren akta egingo du, eta hauek jasoko ditu bertan:
 - a) Batzar Orokorrera bertaratutako kopurua.
 - b) Mahaiaren eraketa.
 - c) Gai-zerrendaren garapena.
 - d) Jorratutako gaiak.Aktaren kopia bat zentroko iragarki-taulan argitaratu beharko da.

49. artikulua.- Eginkizunak eta ahalmenak.

1. Hauek izango dira Batzar Orokorraren eginkizunak eta ahalmenak:
 - a) Erabiltzaileen eskubideen eta interesen alde egitea; haien nahien eta beharren bozeramaile jardun beharko du.
 - b) Zentroaren funtzionamenduaren jarraipena egitea.
 - c) Hitzaldi hezigarriak, autolaguntza-taldeak, familia berriei harrera egiteko taldeak edo erabiltzaileen bizi-kalitaterako eta emandako arretaren kalitaterako interesgarriak eta onuragarriak diren beste jardura batzuk antolatzea.
2. Batzar Orokorraren bilkuran dauden pertsonen zentroaren antolaketa eta funtzionamenduari lotutako iradokizunak aurkeztu ahalko dizkiote zuzendaritzari, gero zuzendaritzak edo Parte-hartze Batzordeak azter ditzan, dagokion arloaren arabera.

2. atala.- Parte-hartze Batzordea.

50. artikulua.- Batzordekideak.

1. Parte-hartze Batzordea hauek osatuko dute:
 - a) Hauteskunde bidezko kideek, erabiltzaileek hautatutako ordezkariak, haiek zuzenean, askatasunez, sekretupean eta hurrengo artikuluan zehaztutako moduan eta kopuruan aukeratuek. Pertsona horiek erabiltzaileen bozeramaile jardungo dute, Parte-hartze Batzordeari kezkatzen dituzten edo haien aburuz hobe daitezkeen alderdien berri emanez.
 - b) Berezko kideak hauek izango dira, gutxienez:
 - zentroko zuzendaria edo arduraduna;
 - zentroko talde teknikoko profesional bat, idazkari jardungo duena;
 - zuzeneko arreta taldeko pertsona bat.Berezko kideek zentroa bera ordezkatu dute.Parte-hartze Batzordeko kideen kopurua, guztira, bakoitia izango da beti, eta berezko kideen kopurua ezingo da inoiz erabiltzaileen ordezkarien kopurua baino handiagoa izan. Parte-hartze Batzordearen eraketak genero-parekotasuna bultzatu beharko du.
2. Era berean, karguagatik, jakintzagatik edo lanbide-jardueragatik Parte-hartze Batzordeari erabakiak hartu baino lehen gai-zerrendako gaien inguruko aholkuak eman liezazkioten pertsonak joan ahalko dira, Batzorde horrek gonbidatuta, eta hitzik eta botorik gabe.

51. artikulua.- Ordezkarien hautaketa.

1. Erabiltzaileen ordezkariek erabiltzaileek eurek hautatuko dituzte eta, gutxienez ordezkarik bat hautatu beharko da 20 erabiltzaileko.

Erabiltzaileen ordezkariek estatutu honen eranskinean jasotako hauteskunde-araudian xedatuta dagoenarekin bat etorri behar dituzte.

2. Parte-hartze Batzordeko burua erabiltzaileen ordezkariek eta euren artean hautatuko dute.
3. Parte-hartze Batzordearen agintaldiak bi urte iraungo du.
4. Parte-hartze Batzordea osatzen dutenek ez dute ordainsaririk jasoko haren kide izateagatik, ez bertan jarduteko betetzen dituzten eginkizunengatik.

52. artikulua.- Hauteskundearen deialdia.

1. Batzar Orokorra sustatuko du Parte-hartze Batzordeko hauteskundearen deialdia, zentro sortu berrietan. Sortu berriak ez diren zentroetan, iritzi den Parte-hartze Batzordeak berak deituko ditu hurrengo hauteskundeak.
2. Hauteskundeetarako deialdia gutxienez bozketarako ezarritako eguna baino 21 egun natural aurretik egingo da, hedatu eta argitaratu ostean. Hauteskunde-araudiak, estatutu honen eranskinean baitago, hauteskunde-mahaiaren prozedurak eta funtzioak, hautagaitzak eta bozketa-modalitatea ezarriko ditu.

53. artikulua.- Bileren aldizkakotasuna eta deialdia.

1. Parte-hartze Batzordea, gutxienez, seihilekoan behin bilduko da gutxienez ohiko bilkuran eta bilkura berezian batzordeburuak, bere ekimenez, zentroko zuzendariak edo arduradunak eskatuta edo osatzen duten pertsonen erdiek gehi batek idatziz eskatuta deitzen den guztietan.
2. Kideei berariazko deialdia eginda bilduko da beti. Deialdi hori gutxienez 48 orduko aurrerapenaz egin beharko da. Bertan, gai-zerrenda, egingo den tokia, eguna eta ordua aipatuko dira.

54. artikulua.- Parte-hartze Batzordea eratzea eta erabakiak hartzea.

1. Parte-hartze Batzordearen lehen deialdiko eraketa baliozkotzat joko da osatzen duten pertsonen erdiek gehi bat daudenean. Bigarren deialdian eraketa baliozkotzat joko da gutxienez erabiltzaileek hautatutako pertsonen erdiek gehi bat daudenean, batzordeburua ere bertaratu bada; bigarren deialdia lehenengoa deitu eta ordu erdi geroago egingo da.
2. Parte-hartze Batzordearen erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilez hartuko dira.

55. artikulua.- Parte-hartze Batzordearen eginkizunak eta ahalmenak.

Parte-hartze Batzordeari eginkizun eta ahalmen hauek dagozkie:

- a) Erabiltzaileekin etengabeko harremana edukitzea, horien nahiak eta beharrak ahalik eta ongien ezagutzea lortzeko asmoz.
- b) Erabiltzaileen artean partaidetzako bizikidetasun demokratikoko harremanak zaintzea eta komunitatearen bizitzan parte har dezaten sustatzea.
- c) Erabiltzaileen artean solidaritatea piztea, elkarlanean aritzeko eta elkarri laguntzeko ekintzak sustatuz.

- d) Bere eginkizunak hobeto betetzeko beharrezkotzat jotzen diren lan-batzordeak eratzea.
- e) Arauzko epeetan Parte-hartze Batzorderako erabiltzaileen ordezkarietarako hauteskundeak deitzea, eta kideen artean batzordeburua hautatzea.
- f) Zentroko barne-araubideko araudiaren proiektua proposatzea eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Desgaitasuna duten Pertsonen Arloko Zuzendariordetzari bidaltzea berrets dezan.
- g) Zentroarentzat aurreikusitako inbertsioak ezagutzea.
- h) Urteko jarduera-programa onestea, horren garapenean parte hartzea eta bete dadin zaintzea.
- i) Urtero Batzar Orokorrari egindako kudeaketaren berri ematea, arazoak eta komenigarritzat jotzen diren konponbideak azalduz, eta batzar horretan landuko den gai-zerrenda prestatzea.
- j) Oro har, zentroko zuzendaritzarekin eta langileekin elkarlanean aritzea, nahi diren helburuak erdiesteko.
- k) Aurrerantzean esleitzen zaion beste edozein.

56. artikulua.- Parte-hartze Batzordeko batzordeburuaren eginkizunak.

Hauek izango dira Parte-hartze Batzordeko batzordeburuaren eginkizunak:

- a) Zentroko zuzendariarekin edo arduradunarekin batera, zentroaren ordezkaria izatea erabiltzaileen ordezkarietza egokia eskatzen duten egintza, jarduera eta inguruabar guztietan.
- b) Batzar Orokorraren eta Parte-hartze Batzordearen bilerak deitzea haien gai-zerrenda finkatuz.
- c) Parte-hartze Batzordearen bileren buru izatea.
- d) Zuzendaritzatik Parte-hartze Batzordearen eskumenei edo, oro har, erabiltzaileei interesatzen zaizen informazio oro jasotzea.
- e) Estatutu honen eta zentroko barne-araubideko araudiaren aplikaziotik ondoriozta daitekeen beste edozein funtzio betetzea.

57. artikulua.- Parte-hartze Batzordeko idazkariaren eginkizunak.

1. Hauek izango dira Parte-hartze Batzordeko idazkariaren eginkizunak:
 - a) Eztabaidak moderatzea eta bilkuren akta egitea; bertan, lehendakariaren oniritzia ageri behar da.
 - b) Parte-hartze Batzordearen eta Batzar Orokorraren jarduerari lotutako administrazio eginkizunak egitea.
 - c) Parte-hartze Batzordearen liburuak, dokumentuak eta gutunak zaintzea.
2. Idazkariaren eginkizunak zentroko zuzendaritzak edo arduradunak egin ahalko ditu, edo talde teknikoko profesional batek.

58. artikulua.- Parte-hartze Batzordeko kideen eginkizunak.

Eginkizun hauek dagozkie Parte-hartze Batzordeko kideei:

- a) Batzordeburuari Batzordearen eta Batzarraren gai-zerrendan sartu behar diren gaiak proposatzea.
- b) Agintzen zaizkien lan batzordeetan parte hartzea.
- c) Eztabaidetan parte hartzea eta erabakiak bozkatzea.

V. TITULUA.- BANAKA PARTE HARTZEKO BIDEAK**59. artikulua.- Kontsultatzeko eginbeharra.**

1. Erabiltzaileari kontsultatu beharko zaio zuzenean eragin diezaiokeen erabaki oro eta berak, beharrezkoa bada, erabakiak lagunduta hartzeko behar diren laguntza tekniko eta/edo pertsonalekin jardungo du. Pertsonak ordezkaria badu, legezkoa edo egitatezko zaintzailea izan, pertsona horrekin kontsultatuko da.
2. Pertsonak legezko ordezkariarik edo egitatezko zaintzailerik ez badauka, hala badagokio aurretik ordezkatzeko izendatu duen pertsonari edo, bestela, erreferentziako senideari egin ahalko zaio kontsulta. Era berean, komenigarria edo beharrezkoa irizten zaien egoera guztietan egin ahalko zaie kontsulta pertsona horiei.

60. artikulua.- Iradokizunak eta kexak formalki aurkeztu aurretiko bideak.

1. Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentro guztiek erreferentziako profesionalak izendatu beharko dituzte. Erabiltzaileek haiengana jo ahalko dute, behar lezaketen laguntza tekniko eta/edo pertsonalekin, edo, zeharka, euren legezko ordezkariaren edo egitatezko zaintzailearen edo erreferentziako senidearen bitartez, zentroko ohiko bizitzari edo haren funtzionamenduari, zein erabiltzailearen banakako arreta planari (BAP) lotutako proposamenak egin edo kontsultak egiteko. Komunikazio horietarako, bide hauek ezarriko dira:
 - a) Posta elektronikoa
 - b) Telefono bidezko kontsulta.
 - c) Elkarriketa-eskaera.
 - d) Salbuespenez, aurretiko hitzordurik gabeko kontsulta.
2. paragrafoan aipatutako bideetatik erantzun gogobetegarria lortzen ez bada, zentroko zuzendaritzara jo beharko da.

61. artikulua.- Iradokizunen eta kexen araubidea.

1. Zentroko zuzendariaren edo arduradunaren erantzuna, aurreko artikulua 2. apartatuan aipatutakoa, gogobetegarria ez bada, erabiltzaileak, behar dituen laguntza tekniko eta/edo pertsonalekin edo, hala badagokio, bere legezko ordezkariaren, egitatezko zaintzaileraren, erreferentziako senidearen bitartez edo are ordezkatzeko aurretik izendatutako pertsonak edo erreferentziako senideak iradokizun-prozedurari edo kexa-prozedurari heldu ahalko dio, kasuaren arabera. Horretarako, erreferentziako profesionalen Erabiltzailearentzako Arretako Unitatera (EAU) bideratu beharko dituzte, beren kabuz betetzeko zailtasunik edukiz gero betetzen lagundu eta unitate horretara jotzeko beharrezkoak diren jarraibide guztiak eman.
2. Iradokizun eta kexen araubideak arlo horretan indarrean dagoen foru-arau zehatzari men egingo dio eta, horren ordeztu, apirilaren 6ko 64/2004 Foru Dekretuan, zeinaren bidez

onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea, autonomia-erkidegoaren mailan xedatuta dagoen iradokizun eta kexen araubideari.

ERANSKINA

DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN PERTSONENTZAKO ZENTROETAKO PARTE-HARTZE BATZORDERAKO ORDEZKARIAK HAUTATZEKO HAUTESKUNDE ARAUDIA.

I. Aplikazio eremua

1. Hauteskunde Araudi hau Arabako Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuen foru sareko egoitza, eguneko eta okupazio zentro guztiei aplikatuko zaie, 14 plaza baino gutxiagoko edukiera duten zentroi izan ezik, parte hartzeko eskubidea bermatzeko estatutu horretan aurreikusitakoak ez beste formula batzuk hautatzen dituztenean, Dibertsitate Funtzionala duten Pertsonentzako Egoitza, Eguneko eta Okupazio Zentrozen Estatutuaren (aurrerantzean, Zentrozen Estatutua) 44.2 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.
2. Hauteskunde-araudi hau zentro bakoitzeko Parte-hartze Batzordearen erabiltzaileen izenean jardungo duten pertsonak hautatzeko aplikatuko da.

II. Hauteskunde prozesuaren hasiera.

1. Hauteskunde-prozesua honela hasiko da:
 - a) Batzar Orokorraren erabakiz, zentro berrien kasuan.
 - b) Parte-hartze Batzordearen deialdiaren bidez, gainerako kasuetan.
2. Bi kasuetan, Batzar Orokorrak hauteskunde-mahaia eratuko duten pertsonak izendatu beharko ditu.

III. Hauteskunde-mahaiaren osaera eta funtzioak

1. Hauteskunde-mahaia hauek osatuko dute:
 - a) Erabiltzaile bik, zuzenean edo zeharka jardunik.
 - b) Talde teknikoko kide batek, hauteskunde-mahaiko mahaiburu eta idazkari jardunik.
2. Hauteskunde-mahaia eginkizun gauek izango ditu, eta mahaiburuaren edo idazkariaren bitartez gauzatu ahalko ditu:
 - a) Hauteskunde-araudia betearaztea.
 - b) Hautagaitzak proposatzea, hautagaitzen aurkezpena onartzea eta, hala badagokio, araudi honen betekizunak betetzen ez dituztenak baztertzea.
 - c) Parte-hartze Batzordeak bere karguaz jabetu arte esku hartzen duten egintza guztien akta jasotzea.
 - d) Hautesle-errola aurkeztea.

IV. Hautesleak eta hautagarriak

1. Hautesle izango dira deialdiaren egunean zentroan izena emanda agertzen diren erabiltzaile guztiak eta zuzenean edo zeharka jardun ahalko dute, Zentrozen Estatutuaren 3. artikuluan ezarritako baldintzetan.
2. Hautagarri izango dira deialdiaren egunean izena emanda agertzen diren eta hautagaitza aurkezten duten erabiltzaile guztiak eta zuzenean edo zeharka jardun ahalko dute, Zentrozen Estatutuaren 3. artikuluan ezarritako baldintzetan. Hauteskunde-mahaiko kide

izendatutako erabiltzaileek ere hautagaiak izan ahalko dira, baina kasu horretan ezingo dira hauteskunde-mahaian geratu eta ordeztu egingo dira.

V. Hautagai zerrendak

1. Hauteskunde-mahaiko mahaiburu edo idazkari jardungo duen talde teknikoko kidea harremanetan jarriko da bere ustez Parte-hartze Batzordean erabiltzaileen ordezkari jardutek behar den gaitasuna duten erabiltzaileekin, eta hautagai izan nahi duten galdetuko die. Arestikoa hala izanik ere, zentroko zuzendaritzak edo arduradunak kontaktatu ez dituen pertsonak ere aurkeztu ahalko dute euren hautagaitza, zuzenean edo ordezkariaren bitartez.
2. 1. atalean aipatutako kasu guztietan, Parte-hartze Batzordean egon nahi dutenek hautagaitza idatziz aurkeztu beharko dute hauteskunde-mahaiaren aurrean, 7 egun naturaleko epean, hori eratzten den egunetik aurrera.
3. Aurreko atalean aipatutako 7 eguneko epea igarotakoan, 24 orduko epea izango du hautagai-zerrenda onesteko eta zerrenda zentroko informazio-taulan jarriko du ikusgai.

VI. Erabiltzaileen ordezkarien gutxieneko kopurua

Ordezkarien zentroko gutxieneko kopurua Zentroen Estatutuaren 51. artikuluan aurreikusitakoa izango da: 20 erabiltzaileko 1.

VII. Bozketa

1. Baldin eta hautagaien kopurua eta Parte-hartze Batzordean parte hartu ahal duten gehienezko ordezkarien kopurua berdinak badira, ez da bozketarik egingo; pertsona horiek automatikoki Parte-hartze Batzordeko kide izendatuko dira, eta, horrela, hauteskunde-prozesua bukatu egingo da.
2. Gainerako kasuetan, bozketa 20 eguneko epean egingo da, hautagaitzak argitaratzen diren egunetik. Hauteskundeak dagozkion zentroan bertan egin beharko da.
3. Hautesleak hauteskunde-mahaiaren aurrean agertuko dira, banaka edo erabakiak lagunduta hartzeko laguntzak ematen dizkien pertsonak, legezko ordezkariak, egitatezko zaintzaileak edo erreferentziako senideak lagunduta, eta mahaiko idazkariak haien identitatea eta erabiltzaile direla egiaztatuko du.
4. Boto-paperetan aldarrikatutako hautagaien izenak agertuko dira, abizenen alfabeto-ordenan; aurrean lauki zuri bat izango dute, boto-emaileak adieraz dezan nortzuei ematen dien botoa. Nolanahi ere, zentro bakoitzean ezarritako ordezkarien gehienezko kopurua beste izen adierazi beharko dira.
5. Hauteskunde-mahaiko idazkariak boto-emailearen izen-abizenak idatziko ditu zerrendan, boto-kontaktetan beharrezkoak diren egiaztapenak burutzeko. Halaber, bilkuraren akta egingo du.

VIII. Zenbaketa.

1. Boto-kontakteta jendaurrean egingo da, hauteskontziak itxi ostean, eta ez da etengo ezinbesteko kasuetan izan ezik.
2. Boto-kontakteta egiteko, hauteskunde-mahaiko lehendakariak hauteskontziko gutun-azalak aterako ditu, banan-banan, bozkatutako hautagaien izenak ozenki irakurriko ditu eta boto-paper bakoitza, irakurri ostean, mahaiko gainerako kideei erakutsiko die.

3. Botoak errazago zenbatzeko, aurretik prestatutako hautagaien banakako orrietan idatziko dira.
4. Baliozkotzat joko dira eranskin honen VII. ataleko 4. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera ezarritako gehienezko hautagai kopurua edo txikiagoa bozkatuta agertzen den boto-paperak.
5. Baliogabeak izango dira ezarri baino hautagai kopuru handiagoa adierazita dutenak eta zuzenketak edo marratzeak dakartzatenak.
6. Hauteskunde-mahaiko idazkariak bilkuraren akta egingo du (hiru kopia), eta mahaiko kide guztiek sinatuko dute.
7. Boto-kontaketa amaitutakoan bi hautagai berdinduta egonez gero, berdinketa hausteko irizpide hauek aplikatuko dira, elkarren segidan.
 - Parte-hartze Batzordean biek euren kabuz jardun ahal badute, zentroan antzinasunik handiena duen pertsonaren alde.
 - Parte-hartze Batzordean bakar batek jardun ahal badu bere kabuz, beraren alde.
 - Parte-hartze Batzordean batek ere ezin badu bere kabuz jardun, zentroan antzinasunik handiena duen pertsonaren alde.
8. Mahaiko lehendakariak bozketaren behin betiko emaitza irakurriko du eta aukeratutako hautagaiak izendatuko ditu.
9. Aktaren ale be zentroan geratuko dira, haietako bat iragarki-taulan erakutsiko da hauteskundeak amaitu eta 48 igarota eta hirugarrena GOFeko Desgaitasuna duten Pertsonen Arloko Zuzendariordetzara bidaliko da.

IX. Parte-hartze Batzordea eratzea eta batzordeburua eta idazkaria hautatzea.

1. Parte-hartze Batzordea hauteskundera egin eta bosgarren egun balioduneara eratzen da.
2. Parte-hartze Batzordea eratuta batzordeburutza hautatuko da, eta batzordekideak izango dira hautesle eta hautagarri, erabiltzaileen ordezkari direnak.
3. Batzordeburua hautatzeko, ezkutuko bozketa egingo da. Boto gehien lortzen duen hautagaia izendatuko da batzordeburu.
4. Zentroko talde teknikoko kide bat izendatuko da Parte-hartze Batzordeko idazkari.
5. Batzordeburua hautatuta eta idazkaria izendatuta, Parte-hartze Batzordea behin betiko eratuta geratuko da eta eraketaren akta egingo da.

X. Plaza hutsak betetzea

Parte-hartze Batzordearen agintaldiaren indarraldian plaza hutsak geratzen badira, Parte-hartze Batzordeak berak proposatuko ditu bete ditzaketen pertsonak eta, onartu ondoren, pertsona horiek plaza huts horiek bete ahaliko dituzte Batzordearen agintaldia bete arte geratzen den aldirako.